

PALESTINA: Hashem Azzeh,
iragarritako erailketa baten
kronika > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

ETAko militantea zela ustez hil
zen gazte hura

IÑAKI ALTUNA > 11

2015eko azaroaren 14a | IX. urtea • 442. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



KIROLLEN KONTAKETA EMAKUME AHOTSEZ

KIROL KAZETARITZA GIZONEZKOEN
GOTORLEKU IZAN DA. BAINA BADIRA HAIN
ITXIA DEN MUNDUAN HOGEI URTETIK
GORAKO BIDEA IBILI DUTEN EMAKUMEAK; ETA
BADIRA HAI EK IREKITAKO BIDEA ZAPALTZEN
SEGITZEN DUTENAK. > 12

Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

Hashem Azzeh, iragarritako eraiketa baten kronika 04

Ikusmira: Zorioneko amaiera izango al du Myanmarko trantsizioak? 07

Ken Saro-Wiwa: Sortzaile handi eta ekintzaile fina 08

Kirolak, emakumezkoen ahots eta lumekin kontatuak 12

Bertsolariak eta Zorroagako egoiliarak, irria ezin kendu 18

Elkarrizketa: Nerea Ibañez, Aspegiko lehendakariordea 22

Ikusmira: Lagunartean gozatzeko kirol baten ahalik eta antzekoena 26

Infraganti: Artola anaiak 28

Behatxulotik: Joseba Elosegik bere buruari su eman zionenekoa 31



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Corbynen lehendabiziko garaipena
- 10 **Unai Fernandez de Betoño:** Plataforma logistikoa
- 11 **Iñaki Altuna:** ETako militantea zela ustez hil zen gazte hura
- 20 **Gorka Zozia:** Non dago mundu guztia? III: Ez gaituzte bestara gonbidatu
- 21 **Garazi Goia:** Ezustekoen zirkulua itxiz
- 25 **Amaia Ballesteros**
- 27 **Maidier Iantzi:** «Zilar emari adatsa...»
- 27 **Xabier Mikel Errekondo:** Garoña, bai ala bai
- 30 **Iratxe Esnaola:** Zoriontasuna sare sozialetan



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Corbyn-en lehendabiziko garaipena

Gure artean oharkabeen pasa da Jeremy Corbynek Ingalaterrako Parlamentuan lortu duen lehenengo garaipena. Ez da izan Komun-en Ganberan, non Corbyn bera parlamentaria den, Lorden Ganberan baizik. Erresuma Batuko goi ganbera horretan parlamentari gehienek erreginaren izendapenari esker edo herentziaz lortzen dute postua. Beraz, ganbera elitisten artean, elitistena da. Hortaz, Corbyn-en garaipena arerioaren joko zelaian heldu dela esan dezakegu. Beste kasu askotan gertatzen den bezala, lorpena ez da bakarrik laboristen abileziaren emaitza izan; Gobernuaren akatsen ondorio izan da gehiago. Edozein kasutan, aukerak sortzen diren momentuan, horiek baliatzen jakin behar da.

Hauteskundeak irabazi ondoren, Cameron-en Gobernu berriak udan aurkeztu zituen aurrekontuak. Orduan, murrizketa sozialak onartzeko bigarren mailako tresna legegile bat erabiltzea deliberratu zuen. Ziurrenik pentsatuko zuen horrela erantzun sozial handia sortzen duten gaiak ezkutu pasatuko zirela. Bide batez, aurrekontuen eztabaida politikoiari mamia kentzeko ere balioko zuela pentsatuko zuen. Azken finean, austeritate politikaren aurrekontuetan irudikatzen da-eta. Aurreikuspenak aurreikuspen, baina, Gobernuak erabilitako trikimailua ez zaie lordei gehiegi gustatu, eta, ezohikoa bada ere, Komun-en Ganberaren erabaki bat atzera bota dute.

Edukiari dagokionez, laguntza sistemaren murrizketa zabala planteatzen zuen egitasmoak. Cameron-en Gobernuak urtero 6.210 milioi euro aurreztu nahi zituen. Institute for Fiscal Studies institutuak egindako txosten baten arabera, 3,3 milioi familiari eragingo zien aldaketak; batez beste urtero 1.768 euro galduko zituen familia bakoitzak. Ingalaterrako laguntza fiskalen sistemak familiak dituen kideak eta diru sarrerak kontuan hartzen ditu eta bi parametro horien arabera laguntza aldatzen doa. Ondorioz, diru sarrera kopuru batetik aurrera, familiak jasotzen duen laguntza gutxitzen doa. Gobernuak bi parametroak aldatu nahi zituen: bai kopuruak bai mugak.

Lorden Ganberan hiru proposamen aurkeztu ziren bozkatzeko. Lehena laboristek aurkeztu zuten eta bertan Gobernuari aldaketak gelditzeko eskatzen zitzaion; egi-

tasmoa indarrean jarri aurretik trantsizio eperako neurri zuzentzaileak aurkeztea ere eskatzen zen. Proposamena onartu egin zuen Lorden Ganbarak. Horrez gain, lord independente batek egindako bigarren proposamen bat ere onartu zuen. Bertan Gobernuari eskatzen zaio gizarte eragileek aurkeztutako ondorio sozialei buruzko txostenak kontuan hartzea. Hirugarren proposamen bat ere aurkeztu zuten liberalek neurriak bertan behera uzteko, baina proposamenak ez zuen babes nahikorik jaso.

Cameron-en Gobernuak izandako erreakzioak Espainiako Alderdi Popularraren Gobernuaren ohiko erantzunak gogoratzen ditu. Hasiera batean, zintzotasunarekin jokatzea eskatu zien lordei, hau da, ohitura zaharra gorde eta Komun-en Ganberaren erabakia errespetatzeko. Leialtasunaren deiak, baina, ez zuen esperotako babesik jaso, ez ganbera batean ez bestean. Ondoren, apelaziotik mehatxura pasa zen zuzenean Cameron. Bere iritziz, anabasa

Nahiz eta hauteskundeak galdu,
laboristak oso epe motzean lidergo
berria osatu eta diskurtso argi eta
zuzena garatzeko gai izan dira.
Gainera, klase ikuspuntua landuz

horrekin bukatu behar da, eta, hala, Lorden Ganberaren moldaketa proposatuko duela iragarri zuen.

Gertatutakoak askotariko balorazioak eragin ditu Ingalaterran. Alde batetik, George Osborne Finantza ministroari trebetasun falta leporatu diote. Analisten iritziz, ez da logikoa irtenbiderik gabeko zuloan sartzea hauteskundeak aise irabazi ondoren. Beste aldetik, laboristen garaipena eta, batez ere, bere lider berriarena dela inork ez du ukatzen. Nahiz eta hauteskundeak galdu, laboristak oso epe motzean lidergo berria osatu eta diskurtso argi eta zuzena garatzeko gai izan dira. Klase ikuspuntua landuz, austeritate politikak ez dutela balio eta alternatibak badaudela behin eta berriz azpimarratzen ari dira. Diskurtso garbi horrek Gobernu kontserbadorearen posizioa asko baldintzatu du. Austeritate politiken higadura gero eta sakonagoa da Europa osoan zehar.

HASHEM AZZEH, IRAGARRITAKO ERAILKETA BATEN KRONIKA


Koldo Sagasti

Hautsak harrotu ditu sare sozialetan Hashem Azzeh ekintzaile palestinarren heriotzak. Bere izena beste bat gehiago izango litzateke azken asteotako martiri palestinar anonimoen zerrenda luzean, ez balitz urtetan nazioarteko elkartasun mugimenduekin izan duen harreman estuagatik. Askok eta askok izan dira bere eta bere familiaren abegikortasuna gozatu duten brigadista eta bidaiari solidarioak; eta horixe izan da, hain zuzen, kolonoen jomugan jarri duena. Iragan urriaren 21ean zendu zen, Al Khalil (Hebron) hirian, Zisjordanian, Israelgo Armadako soldaduek manifestazio batean jaurtitako gas negar-eragilea arnastutakoan. Erailketak umezurtz utzi ditu hiru haur, eta harekin solasa eta mahaia partekatu duten ehunka internazionalista.

Gas the arabs. JDL” (Arabiarrek gaseztatu. Juduen Defentsarako Liga) dio Hashem Azzeh palestinarren etxe atariaren aurrean kolonoei margotutako pintaketak. Ekintzaileak, mehatxuari ezaxola, bisitariei erakusten die grafitia, berak eta bere familiak egunero pairatzen duten jazarpenaren lagina, eta datorkion etorkizun beltzaren iragarpen makabroa. Azzeh bere ama zenaren etxean jaio zen, duela berrogeita hamahiru urte, Al Khalil (Hebron) hiriko Tel Romeida auzuneko mendi magalean. Jaioterrian burutu zituen fisioterapia ikasketak, eta, karrera amaitutakoan, bertan lortu zuen lanpostu on bat UNRWAn (Nazio Batuen Erakundearen menpeko Palestinar Iheslarietako Laguntza eta Lan Bulegoa).

Hebrongo familia tradizionalaletako ohiturari jarraituz, bera baino gazteagoa zen senide urrun batekin ezkondu zen, Nisreenekin. Nisreen margolaria da. Jordania sortu eta bizi izan zen, errefuxiatu palestinarren familia batean. Arte Ederrak ikasten hasi eta bi urtera sorterrira itzuli zen Hashemekin ezkontzera. Ezkonberriek sendiaren sorlekuan bertan ekin zioten bizimodu berriari. Familiaren etxetik auzoko bilakaeraren lekuko izan ziren. Kolono sionistak auzunera iristen hasi ziren neurri berean, bertako biztanle palestinarrek etxeak utzi eta ospa egin zuten, heldu berrien jazarpenaren beldur. Baina Hashemek eta Nisreenek arbasoen bizitokiari eutsi zioten. Etxearen truke egin zieten eskaintza ekonomiko oparoei ere uko egin zieten; eta hortxe geratu ziren, kolono bortitzez inguratuta, irudika dai-tekeen etsai-giro itogarrienetakoan.

Hashem jaio baino urte batzuk lehenago Israelgo Estatua sortu zenetik, eta urteen poderioz gero eta indar-



Nazioarteko brigadistekin harreman estua izateak kolonoen jomugan jarri zuen Hashem Azzeh. Larrutik ordaindu du bere ausardia.
Arrate REMON


tsuago, kolono fanatikoaren helmuga bilakatu zen bere herria. Izan ere, Al Khalilen omen dago, hiru erlijio monoteisten sinismenten arabera, Abrahamen hilobia. Judu, musulman eta kristauen patriarkaren ustezko ehorts-lekuaren xarmak pertsonaia zoroenak erakarri zituen. Deia-dar mesianikoaren aitzakian herria kolonizatzeko asmotan iritsi ziren. 70eko hamarkadan, hau da, Sei Eguneko Gerraren ostean, hasi ziren sionistak hiri sakratura iristen. Moshe Levinger errabino buru zutela Hebron Park hotela okupatu zuten kolonia eraikitzeke. Hura izango zen Kyriat Arba kokaleku ezagunaren sorrera, Palestinako sionista muturrekoen bizitokia. Alberto Pradillak ederki islatu zuen “El judio errado” liburuan kolonia horretako biztanleen zoramen kolektiboa. New Yorkeko Brooklyn auzotik etorritako fundamentalistak dira, hortzetaraino armatuak, eta euren sineskaria erlijiosoen arabera dagokien leku sakratua konkistatzeko bertan bizi diren guztiak garbitzeko prest daude.

1979an iritsi zen kolono estatubatuarren lehenengo taldea, eta Beit Hadassa ospitale zaharrean sartu ziren, eraikina- ren ustezko jatorri judua aldarrikatzeko. Hurrengo urteetan handik hasi ziren hedatzen, inguruko etxebizitzak eta kaleak hartuz. Hebrongo barazkien azoka zena ere okupatu zuten. 1984an indusketa ar-

keologiko batzuetan juduen milaka urteko bizileku baten zantzuak topatu omen zituzten. Ustezko aurrikuntza horrek aitzakia eman zien kolonoei ingurua okupatu eta Tel Romeida kokalekua eraikitzeke. Bestalde, koloniak hedatu ahala, Israelgo Administrazioak zilegitasun bermea eman zien muturreko sionistek ilegalki okupatutako eremuei, eta, 1993an, Osloko akordioen ostean, hiru milioi euroko diru laguntza eman zien azpiegitura egonkorra sustatzeko, eta 1.500 soldadu jarri zituen 500 kolono ilegalei babesa emateko.

OKUPAZIOAK BALDINTZATUTAKO BIZIMODUA

Hain da konplexua Al Khalileko egoera non Osloko itun horietan kapitulu berezia dedikatu zioten aferari, eta Israelgo Administrazioak eta Palestinako Agente Nazionalak hiriaren banaketa berezia adostu zuten: H1 eta H2 guneeak. H1 gunek 18 kilometro koadroko eremua okupatzen du, hirigunearen %80, eta Palestina-ko Agentearen kontrolpean dago. Bertan 115.000 palestinar bizi dira. Hala ere, kolonoek ere bertan zirkulatzeko eskumena daukate eta tarteka Alde Zaharreko karriketan ibili ohi dira, soldaduek babestuta, bertako dendariak mehatxatzen. Bestalde, H2 guneeak 4,3 kilometro koadroko azalera dauka. Bertan 35.000 palestinar bizi dira, 700 kolono sionisten etengabe-



ko jazarpenaren pean, eta Bigarren Intifadaz geroztik Israelek hartu zuen eremu horren gaineko kontrol militarra.

Gauzak horrela, Al Kahalileko Alde Zaharra, garai batean azoka bizi eta jendetsua zena, mamu-hiri bilakatu da egun. Denda gehienak itxi egin dituzte; batzuk kolonoen eraso zuzenak jaso dituztelako eta beste batzuk etengabeko jazarpenak negozioei eragin dien beherakadatik. Palestinarrak fanatiko sionistek okupatutako eraikinetako beheko pisuetan geratu dira harrapatuta eta auzokoek goikoetatik eraso egiten diete. Hain da itogarria egoera, hiri zaharreko karriketan metalazko sareak jarri behar izan dituztela palestinarrak, kolonoek leihotatik jaurtitzten dizkieten zabor, gorozki, txiza eta bestelako hondakinetatik babesteko.

Osloko akordioetan itundutako banaketa horren ondorioz, Azzehtarren etxea kolonoek okupatutako eremuaren barruan geratu zen. Auzoa guztiz inguraturik eta itxita dago, eta barruan kolonoak jaun eta jabe dira. Palestinarrak kontrolgune militarra zeharkatu behar izaten dute Palestinako Agintearen administraziopeko eremura pasatzeko. Hilean ordubeteko baimena baino ez daukate atera eta erosketak egin ahal izateko. Barruan daudelarik oinez besterik ezin dira ibili, debekatuta baitaukate autoa erabiltzea; eta kale zehatz batzuetan baino ez, horre-

Eskolarako bide naturala kolonoek hartuta dutenez, haur palestinarrak buelta handia egin behar izaten dute mendi magalean barna eskolara joan ahal izateko. Eskuinaldeko irudian Nisreen etxe atarian margotzen, alabaren begiradapean.

Arrate REMON



tarako propio seinalez markatutako kaleetan. Aire zabaleko kartzela horretan bizi ziteza gutxi balitz, Hashemi etxean atxilotzeko agindua ezarri zioten, bere jarduera politikoa zela medio. Horrek guztiak bere ibilbide profesionala baldintzatu zuen, eta UNRWako lanpostua galdu egin zuen. Geroztik, emazteak egin eta saltzen zituen margolanak bilakatu ziren familiaren sostengu ekonomiko bakarra. Bitartean, Hashem auzora tarteka iristen ziren brigadista eta bidaiari solidarioentzako bisita gidatuak antolatzen hasi zen.

Inork baino hobeto erakusten zien bisitariei kolonoen jazarpenaren mehatxupean bizitzea zer den. Bere eskutik askok eta askok bertatik bertara ikusi zuten Azzehtarren seme-alabek egunero eskolara

Hashem Azzeh ekintzaile palestinarra Al Khalilen (Hebron) jaio zen. Hiru erlijio monoteisten sinesmenen arabera, bertan omen dago Abrahamen hilobia. Sinesmen hori dela medio, kolono fanatikoen helmuga bilakatu da herria

Osloko akordioetan itundutako banaketaren ondorioz, Azzehtarren etxea kolonoek okupatutako eremuaren barruan geratu zen. Auzoa guztiz inguratuta eta itxita dago, eta barruan kolonoak jaun eta jabe dira

joateko egin behar izaten zuten ibilbidea. Ikastetxerako bide naturala kolonoek moztuta daukate, eta haur palestinarrak itzulingurua egin behar izaten dute, mendi magalean zehar, sionisten etengabeko erasoak saihesteko. Hala ere, askotan oldartu egiten zaizkie, harrika batzuetan, gasak edota molotov koktelak jaurtiz besteetan. Erasoaldi horietako batean Hashemen semea besoa apurtu zioten. Bisita gidatuak etxean zuen helmuga. Hor Azzehtarrek harrera egiten zieten kanpotarrei, eurekin solasaldia eta mahai ingurua konpartituz, euren biziaren intimoen berri ematen zieten.

Nisreek bi aldiz jasan zituen abortua eragin zioten auzokoaren jipoia. Lehenean, haurdunaldia oso aurreratua zuela, kalean harrapatu, harkaitz baten gainean ahoz gora etzanarazi eta odol jariora eragiterainoko kolpe zaparrada eman zioten. Bigarrenean, gauez etxeko leihotik sartu eta haurra galarazi zion astindua eman zioten. Erasoaldi horretan bertan Hashemi hortz guztiak apurtu zituzten kolpatuaren kolpatuaz. Halaxe egiaztatzen zuen beheko masailazurrean zeukan orbain nabarmenak. Eta anfitrioiek bizipen lazgarrien kontaketa ekiten zioten bitartean, egongelako paretetako balla zuloek eta burdinazko hesiekin babesitutako leihoek egiazkotasun bermea ematen zioten istorioari.



Inork ezin zuen jarrera epelik ageri Az-zeh familiaren abegikortasunaz gozatu-takoan. Hashemen lanari esker, eta bere etxea bisitatu zuten mundu osoko bi-daiariak egindako difusio lanaren lagun-tzaz, Tel Romeida auzuneko jazarpen egoerak hedabide ofizialek ezarritako isiltasun harresiak gainditu zituen. Asko ziren mundu osoan hango palestinarre-kiko elkartasuna antolatzen hasi zirenak. Nazioarteko ISM (Nazioarteko Elkartasun Mugimendua) taldekoek, kasu, babesa eta laguntza ematen zieten, geratzen zi-tzaien olibondo bakarraren uztia jasotze-rakoan, bereziki. Etxe ondoko patioan ze-goien olibondoa liskar iturria zen palestinarren eta auzoko sionisten arte-an, eta internazionalistek ezkutu lana egin ohi zuten kolonoek Azzehtarrak era-sotzea saihesteko.

Ez zen lan makala, ondoko etxeakoak Baruk Goldstein ospetsuaren familiako-ak baitziren. Goldstein doktorearen ize-na hizki larriz zizelkatuta dago Al Khali-leko historia beltzean. 1994ko otsailaren 25ean New Yorkeko Brooklyn auzotik etorritako mediku sionista -M-16 fusila, kargagailuak eta granada batzuk eskuan hartuta- Ibrahimen meskitan sartu eta tiroka hasi zen bertan otoitzean ari zire-nen aurka. Lehenengo kargagailua hustu zuenerako 29 lagun erail eta 120 zauri-tuak zituen. Ez zuen, baina, denborarik izan bigarrena erabiltzeko, bizirik ater-a-takoek hil arte kolpatu baitzuten. Handik

gutxira, Goldsteinek burututako sarras-kiaren omenezko mausoleoa eraikiz go-raipatu zuten Hebrongo kolonoek.

Oztopoak oztopo, nazioarteko ekimen solidarioen sostenguaz, bere bizitzako ametssetako bat gauzatzea lortu zuen Hashemek. 2014an abian jarri zuen Ibrahim Al Khalil zentroa, Tel Romeidan bertan. Hor arreta medikua eta soziala ematen zizkien okupatzaileen erasoal-dien ondorioz elbarritutako auzotar pa-lestinarrei. Azkenean, bazeukan non jarri praktikan UNRWako mediku lanetan bil-dutako eskarmentua, kolonoen erasoek bere komunitatean utzitako kaltetuen onerako gainera.

LARRUTIK ORDAINDUTAKO AUSARDIA

Beren jarduera politiko eta sozialak, na-zioarteko ekintzaileekiko harremanek, eta arbasoen etxeari eusteko euren egos-

Hashemek inork baino hobeto erakusten zien bisitariei kolonoen jazarpenaren mehatxupean bizitzea zer den. Askok bertatik bertara ikusi zuten bere seme-alabek egunero eskolara joateko egin behar izaten zuten ibilbidea

Eskolarako bide naturala kolonoek moztuta daukate eta haur palestinarrek itzulingurua egin behar izaten dute sionisten erasoak saihesteko. Hala ere, askotan erasotzen dituzte harriekin, gasekin edota molotov koktelekin



Azzahtarrek beti izaten zituzten etxe-ko atea irekita bisitan zetozkien nazioarteko brigadistentzat. Eskuinaldean, ume talde bat Romeida auzuneko kale hutsetan, soldadu israeldarren begiradapean.

Arrate REMON

korkeriak kolonoen jomugan jarri zituz-ten Hashem eta familiakoak. Oldarral-diak egunerokoak bihurtu ziren, eta, etxea utz zezaten presioa, etengabekoa. Jazarpen egoera horren erakusle da au-zokoek etxe atarian izkiriatura utzi zie-ten mezu mehatxagarria: “*Gas the arabs*”. Hashemek ausardiaz eta proba-kazio puntu batez erakusten zien bisita-riei gerora bere patuaren zorigaitzoko iragarpena izango zen grafitia. Eta mezu adoretzu batez agurtzen zituen beti etxe-an hartzen zituen gonbidatuak: «Ez nau-te sekula hemendik bizirik ateraraziko».

Iragan urriaren 21ean, Hashemek, Al Khalileko Bab al-Zawiya plazan manifes-tazio batean zegoela, soldaduek jaurtita-ko gas negar-eragilea arnastu zuen. Az-ken asteotan salaketa ugari izan dira Israelgo Armadak baliatzen duen erre-presio-materialaren inguruan. Lekukoek orain arte ikusi gabeko gas batez hitz egin dute, jatorri eta konposizio ezezagu-nekoa, eta arnasten duenari berehala ko-nortea galtzea eragiten diona. Bertako zerbitzu medikoek ere ezin izan dituzte identifikatu gas horren osagai kimikoak. Hashemen bihotz zigortuak, baina, ezin izan zion eraso kimikoari eutsi, eta ber-tan zendu zen ekintzailea.

Bere heriotza beste bat izan zitekeen azken asteotako martiri palestinar ano-nimoen zerrenda luzean, baina ezagutu genuenongan arrasto ezabaezina utzi du, bere kuraia eta duintasunagatik.



Nicolas ASFOURI | AFP



IKUSMIRA

ZORIONEKO AMAIERA IZANGO AL DU MYANMARKO TRANTSIZIOAK?

Myanmarko Armadak onartu egin omen du Aung San Suu Kyi hamabost urtez etxean preso izan zuten oposizioko buruzagiaren alderdiak hauteskundeetan lortu-tako garaipen ukaezina. Boto kontaketa mantso doa baina iturri guztien arabera gehiengo osoa lortuko du NLDk. Alderdi horrek aise irabazi zituen bozak

1990ean ere, baina militarrek kolpea eman eta atxilotu egin zuten Suu Kyi. Oraingoan, Parlamentuko eserlekuen %25 aurrez militarren alderdiaren esku baziren ere, PUSDek ez du antza nahikoa izango gehiengoa mantentzeko. Duela bost urte Myanmarrek hasitako trantsizioa ondo amaituko al da behingoz, berri txarrak nagusi diren mundu eta garaiotan? Agian. Izan ere, Armadak izendatuko ditu ministro inportanteenak eta beto-eskubidea mantenduko du Konstituzioa aldatzeko orduan. Gainera, Myanmar go gutxiengoak, musulmanak barne, ez dira fio Suu Kyi bera-taz, batez ere azken urteotan izan duen bilakaera politikoa dela-eta. Dabid LAZKANOITURBURU

{ profila }

KEN SARO-WIWA

Sortzaile handia, ekintzaile fina, Ogoni herriaren martiria

Kenule Beeson Saro-Wiwa (1941eko urriak 11-1995eko azaroak 10) idazle, editore, telebistako produktore eta ekintzaile ekologista handia izan zen. Hainbat eleberri (“Sozaboy”), telebista gidoi (“Basy&Company” telenobela) eta poema-bilduma arrakastatsu (“Songs in a time of war”) idatzi zituen 1980ko hamarkadan. Wole Soyinka eta Chinua Achebe idazleekin edota Fela Anikapulo-Kuti musikariarekin batera, Nigeria eta oro har Afrikako artea munduratzeko, nazioarteko fokuplean ipintzen asko lagundu zuen sortzaileen taldeko kide kontsidera daiteke Ken Saro-Wiwa.

Asteon bete dira bi hamarkada Saro-Wiwa urkatu eta azidoan erre zutenetik. Izan ere, sorkuntzarekin ez ezik, bere denborarekin, bere herriarekin eta Ama Lurrarekin berarekin osoki konprometitututa bizi izan zen. Hitzek duten indarrean sinesten zuen ekintzaile fina izan zen, ideia sortzaile oparoa. 1990ean munduko arreta bereganatu zuen, berak sorturiko Ogoni Herriaren Biziraupenerako Mugimenduaren (MOSOP) eraginkortasuna tarteko. Ingurumenarekiko justizia, berdintasun soziala, autodeterminazio eskubidea eta Niger ibaiko deltaren natur baliabideen kontrola indarkeria ezean oinarrituta defendatzea zuen xede ogoni etniako herritarren mugimenduak.

Autodeterminazioa, ekologismoa eta bakea ardatz zituen MOSOP mugimenduak, baina, etsai latza, eskrupulu gabea, izan zuen aurrez aurre: Royal Dutch Shell, munduko bigarren petrolio konpainia handiena. Ogoni herriaren oihan eta ibaien, landaretza eta faunaren, nekazari eta arrantzale bizimodu milenaristen egoitza zen lurraldea munduko petrolio eta gas erreserba handienetakoa ere bazen, eta, hala, bertako aberastasunak ustiatzeko asmoz, Shell konpainia britainiar-herbeheretarra benetako genozidioa eragiten ari zen bertan Nigeriako diktadura ustelaren konplizitatearekin. Eta Saro-Wiwak gogor salatu zuen bere leinuaren lurretan gertatzen ari zena. Shell konpainiaren kodiziazioak, inongo ardura sozial eta ekologikorik gabeko irabazi azkarraren logikak, zigor bikoitza ezartzen zion Ogoni herriari: Shelleko akziodunek eta diktadurako goi karguek poltsikoratutako aberastasunetatik 40 mila milioi dolar baino gehiago 1958tik aurrera ezer ez eskuratzear gain, ingurunearen eta bizimolde tradizionalen txikizio erabatekoa jasatea.



Ken Saro-Wiwaren obra, borroka eta heriotzaren istorioa historiaren orri-oin bat baino askoz gehiago izango dira.
GAUR8

Shellek bultzaturiko petrolio ustiapen intentsiboaren ondorioak beldurgarriak ziren ogonien lurretan. Azaleko urek, esaterako, onartutako bentzeno maila baino 900 aldiz handiagoa zuten goeko hamarkadan. Minbiziak esponenzialki ugarritu ziren. Ingurumenean eta osasun publikoan erabateko hondamendia bizi zen. 1993an, 300.000 ogoniren manifestazio baten buru zela Herri Indigenen Urtearen baitan antolaturiko Shell konpainiaren aurkako mobilizazioan, argiro adierazi zuen Saro-Wiwak egoera: «Esnatu egin gara eta gure lurak ‘petrolio konpainia’ izena duten heriotzaren agentez beteta aurkitu ditugu. Gure atmosfera erabat kutsatua dago, euri azidoak zuhaitzak pozoitu ditu eta gure fauna eta landaretza birtualki desagertu egin dira».

Zapalkuntzaren aurkako indar erakustaldi hark asko kezkatu zuen Shell kon-

painia. Elkarkidetza beldurgarri bezain basati baten eskutik, Nigeriako junta militarrekin konspiratzen hasi zen konpainia. Soldaduek –Shell beraren babes finantzarioarekin– ogoniak zapaldu eta Saro-Wiwa bera atxilotu zuten, gerora beste zortzi kidearekin batera idazlea urkatzeko agindua emanaz.

«BEDERATZI OGONIAK»

Munduan altxatu zen elkartasun olatua izugarria izanagatik, ez zen nahikoa izan Shell konpainia presionatu eta Saro-Wiwaren bizitza salbatzeko. Ezta Shell Ogoni herritik joateko ere. Bill Clinton edo Nelson Mandela bezalako figurak, munduko gobernuak, giza eskubideen aldeko erakundeak, idazle ospetsuak... sekulakoa izan zen ekintzaileen urkamendiaren aurka altxatutako haserre. Denei entzungor egin zieten Abacha diktadoreak eta Shell konpainiak. Mundu osoa hunkitu zuen “Bederatzi ogonien” urkapenak. Egia da, gerora, Nigeria Commonwealth bertatik egotzi zutela, Shellen aurkako nazioarteko boikot kanpaina indartsua eta auzi judizial andana abiatu zirela, konpainia hainbat milioi dolar ordaintzera behartzen zuten zigorrak lortu zirela New Yorkeko eta Londresko epaitegietan... baina, berandu, beranduegi.

Saro-Wiwa 1994ko maiatzaren 22an atxilotu zuten, hilketaz akusaturik. Aurreko egunean, maiatzaren 21ean, Ogoni herriko lau leinu buru (Samuel Orage, Theophilus Orage, Alfred Badey eta Edward Kobani) ogoni gazte haserretuen saldo batek hil zituen, egurtuta. Egun bat iraun zuen ikerketa fartsa baten ondoren, militarrek MOSOP «talde terrorista» eta Saro-Wiwa «kontrako iritziak onartzen ez dituen diktadorea» zirela ebatzi eta hilketon xaxatzaile eta bultzatzaile jo zituzten. Gaur-gaurkoz oraindik ez da argitu Ogoni herriko lau leinu buruak nork hil zituen. Saro-Wiwa hilketak gertatu ziren lekuan ez zela izan eta gertatutakoarekin zerikusirik ez zuela izan aski demostratuta geratu bazen ere atxilotu orduko, Abacha diktadorearen Gobernuak aldeztu aurretik zuen erabakita nor zen erruduna. Ondoren etorri zen guztia aurrez erabakita zegoena temati, ebidentzia guztien aurka eta legez kontra gauzatzeari baino ez zen izan.

Atxilotuta zutenean Saro-Wiwak jasan zituen torturak beldurgarriak izan ziren. Bere abokatuen kontrako heriotza mehatxuak ere ugariak izan ziren, ogonien artean egindako hilketek ez zuten etenik




ezagutu. Fartsa antzezteko militarrez osaturiko tribunal «espres» bat osatu eta, aurrez idatzita zegoen bezala, azkenean, Saro-Wiwa, Nordu Eawo, Saturday Dobee, John Kpuine, Paul Levera, Felix Nuate, Daniel Gbooko, Barinem Kiobe eta Bari-bor Bera, hau da, “Bederatzi ogoniak”, urkatu egin zituzten.

GORPUTZA AZIDOAREKIN ERRETA DESAGERRARAZI

Urkapenen ondoren, Saro-Wiwaren gorpua azidoarekin erre eta, jarraian, fosa batean, sekretupean gordetako toki batean, lurperatu zuten. Hamar urte geroago, Obasanjoren Gobernuak gorpuzkiak Saro-Wiwaren familiari itzuli zizkion azkenean. Ordurako, baina, Niger ibaiko del-taren matxinadak beste forma bat hartua zuen. Saro-Wiwak defendatutako indarkeria eza eta bide zibila alboratuta, altxamendu armatuaren forma hartu

zuen matxinadak. Hala, Nigeriako petrolio produkzioa kolpatzen hasi zen matxinada eta talde ezberdinen arteko borrokak ugaritu egin ziren, populazio osoen desagerpenak aurrera jarraitzen zuten bitartean. Egun ere, egoera ez da ez bate-re erraza Nigerko deltan: piratak oso presente daude, dirua xede duten bahiketak maiz gertatzen dira, erregaia lapurtzeko asmoz petrolio hodiak zulatzean sekulako tona pila erortzera dira uretara hondamendi ekologikoa eraginez, polizien heriotza eskudroiak oso aktiboak dira...

Hogei urte eta gero, ogoniek bataila de-zente irabazi dituztela esan daiteke. Baina Saro-Wiwak munduko borroka eta kausa justu guztiak egiten zituen bere. Dagoen tokian dagoela, ziur bizitza ematera eraman zuen borroka Kanadatik Texasera eraikitzeak zen Keystone XL petrolio hodiaren aurkako borrokarekin



Ezkerrean, Saro-Wiwa ekintzailea Shell konpainiaren aurkako eta Ogoni herriaren autodeterminazioaren aldeko mobilizazio batean hitz egiten. Eskuinean, Shell konpainiaren aurka New Yorkeko epaitegi baten atarian egindako kontzentrazioa.

GAUR8

lotzen duela –Obamak egitasmoa baztertu du–, edo Artikoa egitekoak ziren zundaketen aurkakoarekin, edo Euskal Herriko AHTren aurkako mugimendurekin. Seguru, hazkunde sakrosantua ardatz duen karbonoaren ekonomia topera iristear egon daitekeen honetan, Saro-Wiwaren istorioa historiaren orri-oin bat baino gehiago izango dela. Legatu bat, eredu bat, inspirazio iturri agortezin bat.

HERRIAREN ONDARE

Hogei urte geroago, mundu osoan ekarri dira gogora 90eko hamarkadako gertakari lotsagarriak. Mundu osoan gorai patu dira Saro-Wiwaren izena eta izana. Nigerian edo New Yorken bezala, Euskal Herrian ere bere absentsia gertuko presentzia sentitu dutenak ez dira gutxi izan.

Onerako ala txarrerako dena aldatu da Nigerian urteotan, gauza bat izan ezik: Saro-Wiwaren izenak herriaren ahotan darrai, bere otoitz eta kantuetan. Ogoni herriari ahotza jarri eta beren zapaltzaileen aurka borrokatu zen Saro-Wiwa. Ogoni herriaren existentzia eta tragedia munduko mapan ezarri zituen. Egun, baita bere kritikoek ere, denek aitortzen dute Ogoni herriko figura unibertsalena dela. Eta bere izena aipatzen den aldiro, nonahi delarik ere, bere herriak gogoan du. Herriarena zelako. Herriarena delako.



Unai Fernandez de Betoño - @UnaiFdB
Arkitektoa

Plataforma logistikoa

ndar espekulatiboentzat oztopo izan ohi dira hirigintza eta lurralde antolakuntza. Haien intereserako hazkunde librea arautzen eta mugatzen dutelako. Horregatik, presio urbanistiko handieneko zonetan zailtasun gehiago biltzen dira bertako plangintza egiteko eta eguneratzeko.

Bilbok, esaterako, 1994tik ez du berritu bere Plan Orokorra. Edo Donostialdeak, adibidez, Lurraldea antolatzeke 4/1990 Legea onetsi zenetik dagoeneko 25 urte pasa direnean, oraindik ez du Lurralde Plan Partzialik.

2010ean saiakera bat egin zen. Orduan, Donostialdeko Lurralde Plan Partzialaren hasierako onespina egin baitzen, beste azpiegitura handi batzuen artean Pasaiaiko kanpo-portua aurreikusiz. 90 alegazio jaso zituen Lurralde Plan Partzial desarrollista horrek. Baina uneko baldintzak aldatu ziren orduan: bai politikoki bai ekonomikoki. Ondorioz, bigarren bertsio bat egin behar izan da 2015 honetan. Bihar bertan, azaroak 15, amaituko da alegazioak jartzeko epea. Eta alegazioak jartzeko arrazoiak badaude.

«Izaera estrategikoko areak» dira zalantzarik gabekoak. Haien artean, Lezo-Gaintxurizketa korridoreko plataforma logistikoa ikaragarria da, beharbada, deigarrienetakoa. 91 hektareako azalera hartuko baitu, Gipuzkoako handiena bilakatuz. Alegia, Pasaiaiko portua zerbitzatzeko terminala portua bera (77 hektareako lur-azalera duena) baino handiagoa izatea proposatzen du Donostialdeko Lurralde Plan Partzialak. «Lurralde-eskalako» poligonotzar bat eratu nahi baita, jarduera ekonomiko logistikoa lantzeko, portua, Abiadura Handiko Trena zein au-

tobidea baliatuta. Kosta ahala kosta. Esan gabe baitoa ingurumen-eraginaren ebaluazioak «gogortzat» jotzen duela Donostialdeko lurraldea oraindik gehiago artifizializatzen duen plataforma logistiko horren inpaktua, eta, hala ere, hasierako onespina eman zaiola Lurralde Plan Partzialari. Proposatzen den azpiegitura-mordoak eragiten duen ingurumen-gatazka zehazki zerrendatzen du ebaluazioak: balio agrologiko altuko lurzoruen afekzioa, paisaiaren gaineko inpaktua, lurzoruen artifizializazioa eta horren ondorioak, baso autoktonoen suntsiketa...

Ez legoke soberan, halaber, plataformatzarrak ekar lezakeen gizarte-eraginaren ebaluazio bat. Proiektuak, besteak beste, Lezoren, Oiartzunen eta Hondarribiaren etorkizun urbanistiko, eta, ondorioz, soziala, erabat baldintzatuko duelako. Euskararen giro hauskorra (Oiartzungo zein Hondarribiko euskara gaitasunak % 70eko langa gainditzen du, eta Lezokoa hortik oso gertu dago), adibidez, kaltetuta gera liteke. Zer dio horretaz guztiaz Lurralde Plan Partzialaren Eragin Linguistikoren Ebaluazioak? A, orduan, noiz egiteko asmoa dago?

Lurralde Plan Partzialak Donostialdeko lurzoruen artifizializazio-maila % 19 areagotuko du. Ez da gutxi. Soilik jarduera ekonomikoetarako 330 hektarea berri okupatzea proposatzen du. *A posteriori* bideratutako neurri zuzentzaileek denbora oso luzea beharko dute egindako kaltea apur bat konpentsatzeko, ingurumen-eraginaren ebaluazioak berak aitortu bezala. Hor-taz, hobe genuke dena *a priori* berriz pentsatu. •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

ETAko militantea zela ustez hil zen gazte hura

Gregorio Fernandez Riañok 21 urte zituen Muskizen zendu zenean, 1979ko martxoaren 9an. Udaltzain bati pistola kentzen saiatzen ari zenean hil zen, borrokan tiro egin baitzuen armak. “Voluntarios, semillas de libertad” liburuak baieztatzen duenez, ETAko kide zela uste zuen gazteak hil zenean, baina ez zen horrela. Bere burua erakunde armatuaren arduraduntzat aurkezten zuen morroi batek manipulatu zuen zenbait ekintza eta lapurreta egiteko, egitera behartzeko. Oraindik ez da argitu zein zen gizatxar hura.

“Indarkeria iraultzaileak” izaera eskuzabala eta epikoa du horretan aritu eta horretan lagundu edo babesa eman dutenentzat, baina horiek denek badakite horrek ere baidituela, ezinbestean, alde ilunak; adibidez, infiltraziotik datozenak, poliziaren infiltraziotik eta infiltrazio ideologikotik. Beharbada, bigarren hori da arriskutsuagoa, ekintzailea oharkabean etsaiaren parametroetan kokatzen baita. Hamaika adibide dago historian.

Borroka armatua zilegi izan dela eta eraginkortasuna izan duela uste dutenek ere ondo dakite barneratzeko oso zailak diren egoerak sortzen dituela. Hainbeste azaldu zuen, adibidez, ETAk Hipercor-eko atentatuak eragindako sarraskian –edo sarraskia gerta ez zedin– izandako ardura onartzerakoan.

Egoera nabarmen aldatu da, prozesu politikoaren garapena eta ETAk hartutako erabakiak direla-eta. Horregatik dira hain zentzugabeak, esate baterako, orain dela gutxi Derion izandako autobus erreketaren modukoak (nolabait, ekintza planifikatu bat, ildo bat ireki nahi duena, ez bat-bateko erantzun herritarra). Beharbada, zenbait urtez ETAk berak bere garaian egindako diskurtsoak, kale borrokan ez zuela aitatasunik nabarmenduz, oinarri bat ere eman die halako saltsetan aritzeko prest egon daitezkeen sektore txiki horiei, nahiz eta presoan alde aldarrikatzen diren horrelako ekintzei espresuki uko egin dion EPPK-k berak. Hala esan zuen, 2013ko abenduan, urteotan egindako adierazpen nagusian: «Ontzat ematen dugu ETAk borroka armatua bertan behera utziz geroztik sortutako agertoki berria, eta Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borroka aurrerantzean bide eta molde politiko eta demokratikoetatik egitea,

norabide horretan hartu diren erabakiekin bat eginez. Hortaz, inposizioari, zapalkuntzari, eskubide urraketei aurre egiteko iraganean baliatu moldeari, aurrera begira uko egitea berresten dugu. Agertoki berriarekiko gure konpromisoa erabatekoa da, berau sendotu eta errotzeko EPPK-k bere ekarpena egiteko erabakia berresten du».

Begira, ordea, Derioko ekintzaren aldarrikapenak jasotakoa: «Kartzelan dauden gehienek biolentzia erabili dute eta gure ekintza modu sinplistan kritikatzeari, zeharka, preso politiko gehienek borrokari irain egiten diote».

Bi paragrafoen artean bada alderik, ezta?

LEHEN ERE ERREFUSATU DITU EZKER ABERTZALEAK HALAKOAK

Dena dela, ez estrategia politiko osaturik ez gutxieneko herri babesik ez duten halako jokabideek ezker abertzalearen gaitzespena jasotzea ez da gaurko kontua, ezta gutxiagorik ere. Horretan bakarren batzuk oso oker daude,

Ezker abertzaleak lehenago ere, eredu politiko-militarra indarrean zenean ere, salatu ditu ENAMen estrategiatik kanpoko ekintzak. Oraingoan Sortuk erabilitako hitzak baino askoz ere gogorragoekin

akaso mugimendu independentistak, ilegalizazio garaia dela-eta, transmisio arazoak izan dituelako edo, zergatik ez, sektore batzuetan zenbait desbideratze ideologiko errotu direlako, adibidez, «sufrikarioaren sozializaziotik» etorritakoa.

Ezker abertzaleak lehenago ere, eredu politiko-militarra indarrean zenean ere, salatu ditu Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua deritzanaren estrategiatik kanpoko ekintzak. Egia esan behar bada, oraingoan Sortuk erabilitako hitzak baino askoz ere gogorragoekin. Portugaletako *Casa del Pueblo*-k 1987an koktel molotovekin jasandako erasoaren harira (bi pertsona hil ziren), ekintza hura baino haragoko hausnarketa plazaratu zuen Jarrai gazte antolakundeak, «beren nahiak errealitatearekin nahasten dituzten eta etsaiak errazki erabil ditzakeen horien» jokabideaz ohartarazteko •

KIROL KAZETARITZA

Kirolak, emakumezkoen ahots eta lumarekin kontatuak

 **KIROLAK** / Mikel Ibargaien

Kirol kazetaritza betidanik izan da gizonen gotorleku. Urte batzuk atzera apenas topa zitekeen emakumerik kirol erredakzioetan eta bidea ireki zuten emakumeek gogor borrokatu behar izan zuten haien balioa erakutsi eta ordura arte oso matxista zen mundu batean lekua egiteko. Egun erreferente bihurtu diren emakumeek harresi hura eraitsi zutenetik egoera normalizatzen ari da pixkanaka, nahiz eta gizonek gidaturiko alor bat izaten jarraitzen duen kirol kazetaritzak.

Iniestak pasea Neymarri, brasildarrak Messirekin jokatu du; kontuz, argentinarra oso arriskutsua da-eta zelaiko azken metroetan. Atzean utzi du Pepe, Ramos irten zaio bidera, baina hau ere primeran gainditu du, Keylor Navasen aurrean bakar-bakarrik dago eta... gooooo

ooooo!!!». Futbol partida baten kontaketa zati bat besterik ez da, baina, muinera joan eta hitz horiei ahotsa nork jartzen dien aztertzen hasiz gero, ia %100ean gizon bat izango da. Izan ere, egoera orekatzen ari den arren, eta kirol erredakzioetan gero eta emakume gehiagok lan eginagatik, oraindik orain kirol kazeta-

Lerro hauen azpian, ezkerretara, Paloma del Rio TVE Espainiako telebista publikoko kazetaria, eta, eskuinaldean, Euskadi Irratiko Arritxu Iribar. Hurrenez hurren, 29 eta 28 urte daramatzate kazetari lanean. GAUR8

ritzak gizonezkoak erabat nagusi diren mundu bat izaten jarraitzen du, eta batzuek eta besteek egiten dituzten lanak eta dituzten ardurak desberdinak dira kasurik gehienetan.

Errealitate hori nabarmenagoa zen duela urte batzuk. Orduan arraroa zen emakume bat kirol gaiak jorratzen ikustea. Testuinguru hartan eman zituzten lehen urratsak kirol kazetari moduan zenbait emakumek. Paloma del Rio, esaterako, duela 29 urte iritsi zen TVE Espainiako telebista publikoko kirol erredakziora. 1986. urteko udaran amaitu zuen karrera eta telebistan praktikak egiteko iragarki bat ikusita probetara aurkeztea erabaki zuen.

«Ikasketa espediente ona nuen eta hartu egin ninduten. Gainera, kirol sailera bideratu ninduten, nik gustuko nuenera, hain zuzen. Hala, hiru hilabetez bekadun aritu ostean azaroan sinatu nuen nire lehen lan kontratua telebistan, sei hilabeterako. Epe horretan oposaketak

egin ziren eta plaza atera nuen», kontatu du.

Urtebete geroago hasi zen Euskadi Irratian lanean Arritxu Iribar. Iribarrek Euskal Filologia amaitu berritan izan zuen lehen hartu-emana irratiarekin, baina hasiera hartan ez zen kiroletan ibili, baizik eta goizeko saio batean Joxerra Garziarekin batera. «Nik kirol kazetari izan nahi nuen, eta, ingurukoak ere horretaz jabetu zirenez, txirrindularitza buruzko gauzatxo batzuk egiten hasteko aukera eskaini zidaten irratian hasi eta bi urtera. Gero, kirol erredakziora pasa nintzen, jada oposaketak gaindita».

Belaunaldi hartakoa da GARA egunkariko kazetari Miren Sanezen ere. Duela 26 urte ekin zuen bere kazetari ibilbidea «Egin»-en, baina, Iribarren moduan, Sanezek ere ez zuen kiroletan izan lehenengo geroa: «Bestelako sekzio batzuetan jardun nuen lehenengo urtean, baina, ondoren, kiroletako arduradunak deituta egin nuen jauzia,



Miren Saenz: «Ondo hartu ninduten lankideek eta erabat logikoa iruditzen zait, izan ere, ‘Egin’ edo GARA bezalako egunkarietan berdintasuna bezalako baloreak bultzatzen dira»

eta kirolean dihardut ordudunik».

Del Rio ez zen emakumezko bakarria Espainiako Telebista Publikoko kirol erredakzioan. Mercedes Milak –egun Tele 5 kateko “Gran Hermano” saioko aurkezlea– 1 Formulako lasterketen emankizunak egiten zituen eta Mari Carmen Izquierdo, Olga Viza, Maria Escario eta Maria Antonia Martinek ere kirol gaiak jorratzen zituzten: «Esan daiteke emakume horiek ireki zutela bidea lehenengoz, eta ni haiekin batera aitzindarietako bat izan nintzela ordura arte gizonezkoe-na zen mundu batean». Iribarrrek eta Saenzek, berriz, bakarrik egin behar izan zuten bide hori, baina nabarmentzen dute oso harrera ona jaso zutela gainerako lankideengandik eta hasieratik normaltasunezko tratua izan zutela. «Garai hartan ni nintzen ‘Egin’-eko kirol erredakzio-ko emakume bakarria. Geroago hasi zen kolaboratzaile gisa Amaia Ugarte Lasagabaster. Halere, oso ondo hartu ninduten

Paloma del Rio: «Kazetari gazteekin ez zegoen problemarik, arazoa futbola lantzen zuten eta 50 urte inguru zituzten kazetari beteranoak ziren; mesfidantzaz begiratzen ziguten»

lankideek eta erabat logikoa iruditzen zait, izan ere, ‘Egin’ edo GARA bezalako egunkarietan berdintasuna bezalako baloreak bultzatzen dira, eta, beraz, hor diskriminazio bat egitea kontrasankorra litzateke. Hemen matxismoak ez du lekurik, printzipio kontua da», azaldu du Saenzek.

Del Riori ordea, tokatu zitzaion oso bestelako egoera desatsegin eta gordin bat bizitzea: «Kazetari gazteekin ez zegoen problemarik, arazoa futbola jorratzen zuten eta garai hartan 50 urte inguru zituzten kazetari beteranoak ziren. Haiek beti mesfidantzaz begiratzen ziguten eta nik haietako batekin esperientzia arraro bat izan nuen. ‘Zuk polita, kirol kazetari mo-

duan aurrera egiteko ideia duzu edo erizaintzara bueltatuko zara?’ –erizain moduan ere lan egin zuen kazetaritzan hasi aurretik– eta horrelakoak esaten zizkidan eta niri tonu hura ez zitzaidan batere gustatzen. Behin, gainera, berarekin bakarrik geratu nintzenean ukituak egin zizkidan eta nik berehala erantzun nion esanez ea jokabide hura normala iruditzen zitzaion eta ea gustatuko litzaiokeen bera egiten ari zen gauza berbera bere alabari egitea. Nire ustez mentalitate matxista hura beraien arloan beraiek baino horberik ez zegoela uste zutelako eta han beste inor sartzerik nahi ez zutelako ematen zen», kontatu du.

Gazteagok dira Natalia Arroyo (“Ara” egunkaria), Sara Gandara (ETB) eta Ainara Hernando (“Ciclismo a Fondo” aldizkaria), eta, hortaz, askoz geroago barneratu ziren kirol kazetaritzan. Haatik, topaturiko egoera antzekoa izan zen. Arroyok 22 urterekin utzi behar izan zuen futbola –Bartze-

lona eta Espanyol taldeetako jokalaria ohia da– jasandako lesio larrien ondorioz. Dena den, artean lotura estua mantentzen du futbolarekin, izan ere, kirol kazetaria izatez gain, Kataluniako emakumezkoen futbol selekzio-ko hautatzailea ere bada: «‘Ara’ egunkarian hasitakoan bost erredaktore finko ginen lantaldean eta horietatik bi emakumezkoak, ni eta beste bat. Harrera oso ona izan zen. Erredakzio gaztea gara eta lankideek ikuspegi zabal eta irekia dute. Beste hedabide batzuetan ausartzen ez diren gaiak jorratzen ditugu ‘Ara’-n eta niregan konfiantza handia dute», argitu du.

Gandara Euskal Telebistara iritsitakoan beste bi emakume baino ez zeuden kiroleko lantaldean: «Ana Ramos eta Elena Azpeitia ziren emakumezko kirol kazetari bakarrak. Gaur egun, Janire Fragua ere badabil Athletic lantzen». Hernandok, bere aldetik, autonomo gisa egiten du lan, baina hilero idazten du “Ciclismo a Fondo” aldizkarian, eta, halaber, “La Razon” egunkariarentzat Frantziako Tourreko kronikak egin ohi ditu. Halere, kirol kazetaritzara lehen gerturapena “Noticias de Alava”-n egindako praktiketan izan zuen 2005ean. «Egunkarian oso gazte hasi nintzen, karrerako lehenengo urtean, eta emakume bakarria zegoen kirol arloan. Ondoren, Gasteizko Onda Cero irratan lan egin nuen eta bertan ez zegoen emakumerik. Orain, ‘Ciclismo a Fondo’-n ere ni naiz bakarria».

GEHIAGO DEMOSTRATU BEHARRA

Ikuspegi atzerakoia duten gizar-teko zenbait sektoretan errotuta egon da urte luzez emakumeek kirolaz hitz egiteko eta berau ulertu eta aztertze-ko behar beste-ko gaitasunik ez duten pentsamendua. Gaia mahai gainera atera orduko bota du atzera Del Riok tesi hori: «Hori sekulako zentzugabekeria da, emakume-
ok gizonen adinako gaitasuna dugu kirolak ulertzeko, gakoa interesean dago. Emakumeek kirolak eta berauen arauak ulertuko dituzte interesa badute, gizonekin gertatzen den moduan;

Behoko argazkian Miren Saenz, GARAKo kazetaria, joan den igandean Behobia-Donostia lasterketan lanean.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS



ez da gaitasun intelektualarekin zerikusia duen zerbait. Gizonekin ere gertatzen dira horrelakoak, nire lankideetako inor ez da gai patinajeko hiru salto desberdin bereizteko, eta nik ez ditut gutxiesten horregatik, nork bere espezialitatea du-eta».

Iritzi berekoa da Iribar ere: «Badirudi mutilek genetikoki kirolak gustuko dituztela eta ulertzen dituztela eta gure kasuan, aldiz, hori beti zalantzan jartzen dela. Elkarrizketa batera joan eta 'zuk honetaz badakizu?' eta horrelakoak entzun behar izan nituen. Harritu egiten ziren. Guk erakutsi eta demostratu behar izan dugu profesional onak garela onartuak izateko».

Hari horri tiraka, Hernandori ere egokitu zaio egoera xeblebreak bizitzea: «Lasterketetara joaten hastean denek galdetzen zidaten ea txirrindulariren baten neska-laguna edo arreba nintzen, eta, kazetaria nintzela eta haiek bezala lanean nengoela esaten nienean, arraroa egiten zitzaien. Lasterketen prentsaurrekoetara joandakoan ere ehun kazetaritik emakumeak bat edo bi besterik ez gara izaten».

Horrez gain, egoera puntualen batean sentitu izan da gutxietsia Hernando: «Hainbat kazetari elkarrekin talde bateko kirol zuzendaria elkarrizketatzen ari bagara, nahiz eta galdera nik egin, erantzuterakoan begirada gizonezko kazetariei zuzentzen die normalean. Horrelako gauzak askotan pasatzen zaizkit. Txorakeria dirudi, baina neurri batean gutxietsi egiten zaituzte».

GAITASUNA ZALANTZAN JARRIA

Horiek horrela, lanbideko kideek zein jendeak haiek eginiko lana merezi bezala baloratu eta onartzeko gizonezko kazetariak baino gehiago demostratu behar izan dutela sentitzen dute batzuek. Horietako bat da Gandara; «erredakziotik kanpo sumatu izan dut kirolari buruz hitz egiteko nuen gaitasuna zalantzan jartzen zutela batzuek. Zuk zer dakizu futbolaz eta horrelakoak entzutea egokitu zitzaidan hasieran; 'barkatu, baina nik futboleak jokatzen dut,



Natalia Arroyo, «Ara» egunkariko kazetaria eta telebistako futbol esataria, partida batean lanean. Arroyo futbolari ohia da, Bartzelonan eta Espanyolen aritutakoa, eta Kataluniako emakumezkoen futbol selekzioa hautatzaila ere bada. Alex GALLARDO

prestatuta nago, eta, beraz, zerbait ulertzeko gai naizela uste dut', erantzun izan dut haserre. Praktikak amaitutakoan behin-behineko kontratuak izan nituen hiru urtez. Ezegonkortasun handiko uneak igaro nituen eta egoera zailak ere bai. Ondorioz, hiru urte egin nituen kazetaritza aldenduta. Gero Hammaika Telebistan itzuli nintzen kazetari lanetara eta berriro jauzi egin nuen ETBra. Jendeak gauza horiek ez dakizki, ezta nagoen lekura iristea zenbat kostatu zaidan ere», kontatu du.

Hernando ere erabat ados dago baieztapen horrekin. Halere, argi du hori ez dela kirolean gertatzen den kontu bat soilik, gizarte osora hedatzen den egoera bat dela baizik: «Sukaldean ere gauza bera gertatzen da. Beti emakumea egon izan da sukaldean eta gizon bat hasi orduko *chef* bilakatzen da. Beste hainbeste gertatzen da modaren munduan. Suposatzen da emakumeoi mundu hori gehiago in-


teresatzen zaigula eta gehiago ulertzen dugula, baina, gero, gizonezkoak dira diseinatzaile ospetsuenak», argitu du.

Denen egoerak, ordea, ez dira berdinak, eta Arroyo, Saenz eta Iribarrek ez dute sentipen hori. Aitzitik, bidea inongo oztoporik gabe egin dutela aitortzen dute eta pribilegiatu batzuk direla iruditzen zaie. Era berean, emakumeek gauza batzuetarako abantaila izan dezaketela dio Iribarrek: «Emakumea izateak ematen du harremanak izateko beste sentsibiltate bat, eta zenbait momentutan agian beste tratamendu bat lortzen dugu kirolariek. Nire kasuan, gainera, emakumea izanik eta euskaraz soilik lan eginda, oso gertuko mundu batera eraman nau eta horrek nire ibilbidean kalte baino gehiago asko lagundu dit. Beterie, noski, desberdinduz zer den harreman pertsonala eta zer harreman profesionala».

Egunkarietako kirol erredakzioetan diharduten kazetariak

mota desberdineko lanak jorratu ohi dituzte: Hala nola, albisteak, elkarrizketak, erreportajeak eta kronikak. Bestalde, telebistan edo irratian dabiltzanek, genero horiez gain zuzenekoak, aurkezle lanak, esatari lanak eta aditu lanak ere egiten dituzte. Horietako lanik gehienetan sarritan ikusten dira emakumeak. Aldiz, zuzeneko emankizunetan esatari lanak egiten edo esatariarekin batera analisiak egiten ez. Egoera horren zioa azaldu du Del Riok: «Telebistan ikusten den kirolek %80 inguru futbola da, eta futbola gizonezkoek soilik kontatzen duten kirola da. Halere, gainerako kirol minoritarioetan TVEn emakume dezente ditugu zuzeneko emankizunak egiten; Eva Aguilera, Julia Luna, Lourdes Garcia Campos eta ni neu, besteak beste».

Hain zuzen, horregatik da berezia Arroyoren kasua: emakumeen futbol partidetan aditu lanak egiten hasi ostean, iragan



urtean Gol Television bezalako kate indartsu batean gizonen partidetan lan berbera egiteko aukera eskaini zioten. Gainera, hedabide desberdinetako tertulietara ere gonbidatzen dute: «Ni beti egon naiz une eta leku egokian. Kataluniako TV3 kate-tik emakumeen partidekin has-tean deitu ninduten eta ordutik beste hainbat gauza atera zaiz-kit. Niri agian mesede eta dena egin dit emakumea izateak. Lana ondo egiten nuela ikusita bi-dea ireki didala esango nuke, baina jakitun naiz ez dela joera orokor bat. Halere, ni askotan ez naiz egoeraz ohartzen, niretzat normaltasunaren barruan dago-en zerbait delako. Baina egia da lagun askok esan didatela ni naizela gizonezkoen futbola zu-zeneko emankizunetan eta kate garrantzitsuetan aztertzen du-dan emakume bakarra».

Adituen gaiarekin jarraituz, Del Riok aitortzen du TVEn ez dutela emakumerik futbol emankizunetan, baina bai ordea

bestelako kirol minoritarioetan, nahiz eta pauso hori emateko majo izerditu behar izan zuten: «Ikaragarri kostatu zitzaigun Vi-vi Ruano, Gala Leon edo Conchi-ta Martinez emankizunetan adi-tu lanetan jartzea, izan ere, erabakiak hartzen zituen jende-aren mentalitatea zen jendeak gizonezkoen komentarioak en-tzun nahi zituela».

IRUDIARI LOTUTA

Iribarrek ere badaki ez dela ohi-koena, baina nabarmendu du Euskadi Irratian izan direla eta badaudela emakumeak horrela-ko lanetan: «Nik neuk futbol emankizunak egin nituen kirol erredakziora iritsitakoan. Reala-ren zein Athleticeen partidak egin nituen, baita pilota, arrau eta ziklismo emankizunak ere. Analisiak egiterakoan ere nire iritzia eman izan dut arraunean eta ziklismoan. Orain, Maitane Urbieta ere hor dugu».

Gandarak Euskal Telebistako albistegietako kirol tartea aur-

Ezkerreko argazkian Aina-
ra Hernando, «Ciclismo a
Fondo» aldizkari-
ko kazetaria, txirrindulari bat
elkarrizketatzen.
Eskuinaldean, Sara
Gandara, Euskal Telebistako
albistegietako kirol
tartearen aurkezlea.

GAUR8

kezten ditu euskaraz, baina esa-tari lanak egiteko aukerarik ez du izan. Hori bai, gustatuko li-tzaioke egunen batean aukera hori izatea: «Ez da normala esa-tari moduan hain emakume gu-txi egotea. Niri pertsonalki asko gustatuko litzaidake eta uste dut ondo moldatuko nintzate-keela. Proposatzea falta da».

Aurkezle lanak egiten dituz-ten emakumeak sarritan dira eztabaida iturri, izan ere, gehie-nak fisikoki oso erakargarriak izaten dira, eta, badirudi, ezau-garri hori betetzen ez duten emakume kazetariak ez dutela lekuri egungo telebistan. Egoe-ra horren aurrean ondorengo hausnarketa egiten du Saenzek: «Aurpegi polit bat bilatzen dute askotan profesional moduan duten gaitasuna aintzat hartu gabe, eta niri ez zait logikoa iru-ditzen. Egia da emakume horiek normalean ondo prestatuak egoten direla, baina beste kon-tuei balore handiagoa eman be-harko litzaikeela uste dut».

«Gauza horiek ez dira onak ez lanbidearentzat, ezta guretzat emakume bezala ere», gaineratu du Hernandok.

Hain zuzen ere, aurkezle iza-tearena da Gandaren lana eta aztertu berri ditugun arrazoi-kin lotutako hitz desegokiak ja-san behar izan ditu noiz edo noiz: «Jende gaiztoa egon bada-go eta entzun behar izan dut ni-re itxura fisikoarengatik nagoe-la telebistan. Baieztapen horiek txorakeria hutsak dira eta ezja-kintasunetik eginak».

Halere, bada norabide hori hartu eta atzerako bidea egin duen kate garrantzitsurik, BBC Erresuma Batuko telebista pu-blikoa kasu. Iribarrek plazaratu du adibidea: «BBCn egin zuten aurkezle lanetan kazetari era-kargarriak jartzeko proba, baina gero atzera egin zuten. Izan ere, albisteak ematen dituenak si-nesgarritasuna eman behar du. Horregatik, esperientzia handia-goko kazetarien aldeko hautua egitea erabaki zuten berriro».

Urteotan guztietan bizitakoa kontuan hartuta lanbidean sumatu duten garapenaren gainean galdetuta, iritziak kontrajarririak dira. «Egoera aldatu da eta postuak eta lanak gaitasunaren eta gustuen arabera banatzen dira, ez sexuaren arabera», dio Del Riok. Ez du ikuspegi berdina Hernandok: «Ez dut aldaketa handirik nabaritu. Egia da emakume gehiago gaudela lanbide honetan, baina ez dut uste hobe- to baloratuta gaudenik».

EMAKUME KIROLARIEN PRESENTZIA

Haien lanbidearekin lotuta, emakume kirolariek hedabideetan duten presentzia da etengabe buruan bueltaka darabilten gaietako bat. Ez zaie logikoa iruditzen 2015ean egonda eta esku- ratzen ari diren lorpenak aintzat hartuta, emakume kirolariak kasurik gehienetan bigarren planoan geratzea. Dena den, aipatzen dute puzzlea osatzea eta egoera iraultzea ez dela samurra: «Hemen kontua da futbolak gainerako guztia jaten duela. Euskal Herrian, gainera, gizonen hiru talde ditugu Lehen Mailan eta horiek bertako hedabide guztietan lekua ziurtatuta dute. Egoera orekatzeko diskriminazio positiboa egin beharko litzateke. Gu ahal den neurrian saiatzen gara emakumeei merezi duten lekua eskaintzen. Guri emakumeen kirola interesatzen zaigu», azaldu du Saenzek.

Hedabideek duten joeraz jabetzeko adibide argigarri bat kontatu du Del Riok: «2003an Gimnasiako Munduko Txapelketatik bueltan Espainiako Selektzioaren hegazkin berean egin nuen buelta, eta bertan zegoen urrezko domina lortu berri zuen He-

lena Gomez. Kasualitatez, aire- portuan Txapeldunen Liga jokatzera zihoan Real Madril taldearekin egin genuen topo eta kazetariak ez zioten jaramonik ere egin Gomezi, denak Rauli segika zeuden, hori zen axola zitzaien bakarra; Raul maletari tiraka grabatzea, hain zuzen. Ez du inongo logikarik, baina hori da editoreek nahi dutena. Futbolak gainerako dena jaten du».

Egungo egoera hori izanagatik gaiaren gainean nork bere hausnarketa egin beharko lukeela uste du Iribarrek, arazoa ez baita hedabideena soilik: «Uste dut kontu horrekin denak hipokrita samarrak garela. Hau da, erraza da demanda egitea hau edo bestea ez dutela ematen, baina galdetu pertsona horiei ea zein futbol, eskubalo edo pilota partida ikusten duten. Euskal Herriko Itzulian errepideak jendez beteta egoten dira eta Emakumeen Biran, aldiz, ez da ia inor egoten; eta munduko onenak ikusteko aukera izaten da. Beraz, pertsona horiei galdetu behar zaie ea zer egiteko prest dauden arazoa konpontzeko».

Presentzia urri hori defendatzeko hedabideetako arduradunek erabiltzen duten argudioak audientzia eta interes eta errentagarritasun falta dira, baina Arroyok dio emakumeen kirola ematen denean ere oso gutxi iragartzen dela eta horrela oso zaila dela egoera aldatzea. Ados dago Del Rio ere: «Emakumezkoen kirolak zuk nahi duzun audientzia sortzen du. Hori bai, audientzia hori egiten duzun iragarpenaren, duen babeslearen eta ematen diozuen tarte eta garrantziaren arabera izango da. Begira itzazu Carolina Mari-

nek [Badmintoneko Munduko txapelduna] Europako eta Munduko txapelketako finaleran jokatutuen partiden ikusle kopuruak. Kirolari bat domina bat lortzera doanean berdina du emakumea edo gizona den, jendeak erantzuten du. Begiratu waterpoloko edo eskubaloiko emakumezkoen selektzioek txapelketetan aurrera egin dutenean ere nolako audientzia kopuruak eman izan dituzten».

Presentziaz gain, haien gainean idazten denean erabiltzen den terminologia aztertzea merezi duen beste puntuetako bat da, eta, hain zuzen, hor jarri du azpimarra Hernandok: «Zerbait irabaztean gizonak eta emakumeek jasotzen duten tratua oso desberdina da. Igeriketako neska batek domina bat lortzean, ‘sirena’ deitzen diote eta bere edertasuna goraiatzeko da bere kirol jardunari buruz ia ezer aipatu gabe. Aldiz, inork ez du ezer esaten jokalariei hankei edo abdominalari buruz».

BERDINTASUNA URRUN

Pausoak eman diren arren, nahi baino txikiagoak direla esan dute sei kazetariok eta bat datoz esatean bidean aurrera egiteko lagungarria litzatekeela kirol erredakzioetan eta agintaritzan postuetan emakume gehiago izatea. «Emakumeek normalean gurekin dugu begirada eta sentsibilizazio hori, eta, beraz, giltzarri izan liteke», dio Arroyok. «Ni zuzendaria banintz apustu sendoagoa egingo nuke emakume kirolarien alde. Eta ez bakarrik emakumeak direlako, baizik eta haien lorpenekin albiste direlako», gehitu du Gandarak.

Kontuak kontu, ez diote muzin egiten errealtateari, eta, eragiten segi beharra dagoela dioten arren, ez dute uste epe laburrean berdintasuna iritsiko denik. Hitzok jarri du amaiera Del Riok: «29 urte daramatzat borroka honetan, eta, egia esateko, oso gutxi aurreratu da. Hala ere, egia da emakumeek bozkatzeko aukera bera 1931n lortu genuela Espainian eta orain denak egoera berean gaudela. Hortaz, erraza izango ez den arren, ez da amore eman behar».



TIANQI ZHANG

BARTZELONA FUTBOL TALDEAREN
BERRIEMAILEA TXINAKO QQ WEBGUNEAN

«Txinan emakumezkoen futbolak gizonezkoenak baino oihartzun handiagoa du»

Pekingoa (Txina) da sortzez Tianqi Zhang, baina bizitzak ematen dituen itzuliguruak medio Bartzelonan dihardu lanean egun. Eta berak duela urte batzuk imajinatu ere ezingo zukeen lanbide batean gainera, izan ere, Mendebaldeko kulturak erakarrita Espainiar Filologiako ikasketak burutu zituen, baina, orain, kirol kazetari moduan dihardu Bartzelona futbol taldearen gaineko informazioa landuz QQ webgune txinatarrarentzat.

Arritxu Iribar: «Badirudi mutilek genetikoki kirolak gustuko dituztela eta ulertzen dituztela eta, gure kasuan, aldiz, hori zalantzan jartzen dela. ‘Honetaz badakizu?’, galdetu izan didate»

Ainara Hernando: «Lasterketetara joaten hasi nintzenean denek galdetzen zidaten ea txirrindulariren baten neska-laguna edo arreba nintzen»



Zhangek badaki Euskal Herriko hizkuntza euskara dela, eta, hala, gure deia jaso duenean, “kaixo” esanez agurtu gaitu. “Kaixo” eta antzerako beste hitz bakan batzuk ikasi ditu Euskal Herrira eginiko bisita laburretan eta hemengo kultura oso interesgarria dela iritzita ez du baztertzen etorkizunean euskara ikastea.

Bartzelonan eta kirol kazetari moduan lanean, duela urte batzuk pentsaezina.

Egia esateko nire bilakaera berezia izan da. Ni betidanik erakarri izan nau Mendebaldeko kulturak eta horregatik erabaki nuen Espainiar Filologia ikastea, eta, egia esateko, ez naiz batere damutzen, asko gustatzen zaidan mundu bat da-eta. Hori bai, bizitzak buelta asko ematen ditu eta kirol kazetari moduan amaitu dut.

Noiz hasi zinen gaztelania ikasten? Primeran hitz egiten duzu.

2009.urtean hasi nintzen gaztelania ikasten. Ordura arte ez nekien ezer, eta, beraz, sei urte daramatzat zeregin horretan, oraindik ere klaseetara joaten bainaiz. Hurrengo pausoa euskara ikastea izango litzateke. Ez du zerikusirik gaztelarekin edo hizkuntza erromanikoekin baina oso interesgarria iruditzen zait. Fonetikoki japoniarrarekin topatzen diot antzekotasunen bat.

Ikasketen bidez iritsi zinen lehen aldiz Bartzelonara.

Hala da. 2011. urtean Pekingo Unibertsitatean ikasten ari nintzela urtebetez ikasketak atzerrian egiteko aukera sortu zitzaidan eta aukera horren bidez etorri nintzen estreinakoz Bartzelonara. Jendeak primeran tratatu ninduen, lagun asko egin nituen eta oso esperientzia ona eta aberasgarria izan zen. Orduan erabaki nuen berriro itzultzea.

Halere, aldaketak sumatuko zenituen. Txinako eta hemengo kultura eta ohiturak desberdinak izango dira.

Aldaketa handiena bazkaltzeko eta afaltzeko ordutegietara egokitzea izan zen. Txinan 12:00ak aldera jaten dugu eta Bartzelonara iritsitakoan ordu horretan jotetxeren batera joan eta denek arraro begiratzen ninduten, oso goiz zela esanez.

Lanari dagokionez, Bartzelonara bueltatutakoan hasi zinen kirol kazetari moduan?

Ez. 2014an hasi nintzen QQ webgunean lanean eta Brasilgo Mundialean Argentinako eta Espainiako selekzioen gaineko informazioa landu nuen. Hortik aurrera futbolaren gaineko informazioa landuz jarraitu dut hedabide berdinerako eta iragan urtean hasi nintzen Bartzelona futbol taldearen gorabeherak jorratzen. Urtebete inguru daramat lan horretan. Gainera, nire lehen partida Eibarren aurkakoa izan zen, Euskal Herrikoa talde bat hain justu.

Nola hartu zintuzten Bartzelonaren gaineko informazioa latzen duten gainerako kazetariek?

Nik zorte handia izan dut. Pekinen nengoenean Espainiako kazetari batzuk ezagutu nituen, han espainiar kazetari dezente ibiltzen delako. Adibidez, Espainiako irrati eta telebista publikoetakoak eta Tele 5 katekoak. Horiek asko lagundu zidaten, Bartzelonako lankideak aurkeztuta.

Zer lan egiten dituzu zehazki?

Nire lana batik bat partidaren ostekoa izaten da. Jokalariak elkarrizketatzen ditut eta teknikarien prentsaurrekoetara ere joaten naiz.

Nolakoak dira futboleko izarrak aurrez aurrekoan?

Niri oso adeitsuak iruditu zaizkit. Lan honetan hasi aurretik pentsatzen nuen hain maila altuko jokalaria eta

”

«*Kirol kazetariei dagokienez Txinan ez dut alde aldirik sumatzen emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Txinan beti esan da emakumeak letratakoak garela eta nabaritzen dela albiste bat emakume batek idazten duenean, detaile eta datu gehiago ematen dituelako»*

ospetsuak izanik harro samarrak izan zitezkeela, baina guztiz kontrakoa da: oso gertukoak eta jatorrak dira. Aurreko urtean Pedro, Xavi eta Busquets elkarrizketatu nituen, besteak beste, eta primeran moldatu nintzen denekin.

Messi elkarrizketatzeko aukera izan duzu?

Bartzelonan ez, baina Brasilgo Mundialeko finalaren atarian eman zuen prentsaurrekoan berari galdera bat egiteko aukera izan nuen.

Jendeak ideia bat egin dezan, bertako zein hedabiderekin pareka liteke QQ webgunea?

“Sport” edo “Marca” egunkarien baliokide bat dela esan daiteke, milioika erabiltzaile ditu-eta. Futbolaren eta Espainiako futbol ligako informazio asko topa daiteke bertan, Txinako jendeak gai horien inguruko interes handia du-eta. Izan ere, Espainiako selekzioak lorpen garrantzitsuak eskuratu ditu azken urteotan, eta, ondorioz, Txinan boom bat egon zen. Hori bai, ez da kirolari soilik atxikitako ataria. Bestelako gai batzuk

ere jorratzen dira webgunean, sozialak eta ekonomikoak, besteak beste.

Bartzelona futbol taldeaz aparte bestelako gairik lantzen duzu?

Bai. Aurreko urtean, esaterako, Bartzelonak Kopako finala Athleticen aurka jokatu zuenean, QQ bertako editoreak Athleticen gaineko erreportaje bat egiteko eskatu zidan, taldearen filosofia oso berezia iruditu zitzaion-eta.

Nolako harrera izan zuen erreportajeak Txinan?

Txinan arraroa egiten zitzaien egungoa bezalako mundu globalizatu batean bizita talde batek horrelako filosofia eta baloreak mantentzea, baina oso gustura irakurri zuten nire lana. Komentarioak izan ziren oso kultura purua zela eta Txinan ere horrelako zerbait behar dela.

Konturatuko zinen hemen futbolak gainerako kirol guztiak jaten dituela. Txinan ere hala gertatzen da?

Txinan futbola ez da indar gehien duen kirola. Txinako futbol liga oso gaztea da, hogei urte pasatxo baino ez ditu eta selekzioak behin baino ez du lortu Mundialean egotea. Txinan ping-ponga edo badminton bezalako kirolek arrakasta eta jarraitzaile gehiago dituzte.

Zein da emakumezkoen kirolaren egoera?

Txinan emakumezkoen futbolak gizonezkoenak baino oihartzun handiagoa du. Halere, ekonomikoki laguntza gutxiago du eta oraindik bide asko dago egiteko. Bestelako kiroletan egoera aldatu egiten da modalitatearen arabera.

Zein da emakumeek kirol erredakzioetan duten egoera?

Kirol kazetariei dagokienez ez dut alde aldirik sumatzen emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Txinan beti esan da emakumeak letratakoak garela, eta, beraz, nabaritzen da albiste bat emakume batek idazten duenean, detaile, informazio eta datu gehiago izaten ditu-eta. Agian duela urte batzuk ez genuen horrenbesteko estimarik, baina orain egoera orekatu egin da.

Bartzelonan jarraitzeko ideia duzu?

Oso gustura nago Bartzelonan eta momentuz bertan jarraitzeko ideia dut. Gainera, uste dut hurrengo urteetan kazetari dezente etorriko direla Txinatik Espainiara bertako informazioa jarraitzera.

BERTSOLARIAK ETA ZORROAGAKO EGOILIARRAK, IRRIA EZIN KENDU

Maidar Iantzi Goienetxe

Osteguna, azaroak 12, egun berezia Zorroagako zaharren egoitzan. Betiko barrenean geldituko zaiena bertan bizi diren gizon-emakumeei, mimoz zaintzen dituzten langileei eta Sebastian Lizaso eta Ane Labaka bertsolari pareari, baita guri ere. Hartu-eman ederra, emozioen pizgarri.

Anoetan goiti uste baino lehenago ailegatu gara Zorroagako egoitzara. 11.00etan meza dute egoiliarrek eta ondotik hasiko da bertso saioa. Eguzkia borobil eta goxo dago, terraza eta kafetegia beteta lorategi zabal eta ederraren ondoan. Solasean edo irakurtzen ari dira adineko pertsonak, langileak ere kafe orduan lasai. Gune batean autonomoak bizi dira eta bertzean mendekotasuna dutenak. Saioa bi taldeetako euskaldunei zabaldu diete.

Ohar taulan makina bat ekintza egiten dituztela ageri da: urtebetetzeen ospakizunak, loteria, Memoria Gelako jarduerak... Solairuek Donostiako auzoen izenak dituzte, errazago oroitzeko. Hara, badatoz bertsolariak, «Sebastian Lizaso eta laguna», dio Ane Labaka gazte lasartearrak berak. Baina kantatzen aditu eta gero ederki ikasi dute denek bere izena. Lehendabiziko bertsoetik bertatik animo ugari eman dizkiote. Azpeitiarrarekin, aldiz, txoratzen egon dira. Baten esperientzia eta bertzearen freskotasuna konbinatu dituzte.

«Listo, prest gaude», abisatu digu Sandra Hernandez psikologo eta arduradunak. «Amara» pisura igo eta gela zabal eta eguzkitsu batean topatu dugu gizon-emakume taldea borobilean eserita. Hasieratik bertatik jakin dugu nor izanen den protagonista. Bertsolariak aurkezpeneak egiten hasi orduko garbi utzi du oiartzuarra dela eta ez dagoela isiltzeko.

Momentu hunkigarria izan da egoiliarrek, papera eskuan, bertsolariei ongietorri bertsoa eskaini dieteneko, zaintzaileekin batera. «Baten batek bertso zaharren bat badu kantatzeko, lasai egin dezala, hau zuen etxea da, ez gurea», ekin dio bertsolari azpeitiarrak xaxatzeari. Ez diote zirikatzeari eta entzuleen parte hartzea eta konplizitatea bilatzeari utzi Labakak eta biek. Pilar oiartzuarra Sebastiani jarritako puntuak eman dio hasiera librean eta umoretik kantatutako saioari.

Ane gogotsu etorri da: «Gaur bertsoekin 40 urte gaztetuko zaituztegu», bota eta gizon-emakumeei aunitz gustatu zaie, irribarrez eta bukaera kantatzen lagunduz erantzun baitiote. Lizasoren erantzuna berehala

etorri da, irribarrea irri algara bihurtuz: «Badaezpada ateak ere azkar itxi ditzatela/ gaztetuz gero hemendik alde egingo dute bestela».

Taldea hagitz anitza da eta denetarik ikusten da. Langileek jakinarazi digute-nez, egoitzako biztanleen batez besteko adina 80 urtetik gorakoa da eta batzuek eritasun hagitz garatuak dituzte. Hortaz, zoragarria da adi-adi eta gozatzen egotea. Hernandezek agertu duenez, batzuentzat energia gastu handia da ordubetez saioa entzuten egotea eta hiru pertsonak soilik lo hartu izana lorpen handia da.

Lasarte-Oriako gazteak aitortu du lehendabizikoz sartu dela zahar egoitza batera eta azpeitiarrak zuzendu dio erranez hemen zaharrik ez dagoela, izatekotan aspaldi jaiotakoak. Berotzen doa giroa eta Sebastianek harridura azaldu du emakume gehiago daudelako gizonak baino. Emakumeak pozik bera ikusita, baina Anek kontuz ibiltzeko abisatu dio: «Hemen ez da komeni egitea bi talde/emakumea azkar jartzen da emakumearen alde». Lizasok ez du hain garbi: «Kontra ere azkar jartzen zarete zeloak sortzen badira».

GIRO EUSKALDUNA ESTIMATU

Gazte garaira luzatu dute begirada eta bertsolariekin batera faltan eman dute erromeria. «Bekatu batzuk egindakoak izango zarete baina/ zenbaitek pena edukiko du bekatu gutxi egina», xaxatu eta euren artean komentarioak sortu dira. «Konfesatzera joango dira gu biok entzun eta gero».

«Rubia» deituz urduri, azazkalak jaten jarri du Pilar Sebastianek eta Anek ez dio sinetsi gaztetan bera ere «rubioa» zela kontatu dionean. «Rubioa zela pentsatzen dunak altxa dezala eskua», eskatu die entzuleei eta segituan altxa dute batzuek. Lizaso gustura.

Puntuka segitu dute, eta gero «Donostiako Hiru Damatxo» kantatu dute denek elkarrekin. Abesteaz gain, hankarekin edo bastoiarekin erritmoa jarraitzen dute batzuek. «Gu etortzeak merezi badu berriz etorriko gara», agurtu ditu bertsolari helduak; «segi zazue irriparretsu, agur eta pozik bizi», gazteak.

Iñaki Urdangarin da irribarrea kendu ezinik dagoenetako bat. Txirrita bere aitonaren anaia zela kontatu digu. Berak ere kantatzen du batzuetan eta hagitz gustura egon da, Mikel Sukiaren gisan. «Bertsotan oso garbi egin dute, dena ulertzeko moduan», adierazi du honek. «Euskara aurreratzea nahi dugu; urte txarrak pasa ditugu, debekuak, eta jende askok dezente galdu du hizkuntza, tarte-



Ane Labaka eta Sebastian Lizaso Zorroagara itzultzeko gogoz gelditu dira. Bertako gizon-emakumeak, zer erranik ez. Beso zabalik hartuko lituzkete berriro. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



«Non dago Sebastian?» galdetzen du Pilarrek. Telefonoz ari da. «Oraindik? –beranduxeago–. Gero emakumeez esaten dute...». Basarrik Oiartzungo emakumeei jarritako bertsoak kantatu dizkio eta Lizasok ezagutu ditu

Langileek saioa «oso ondo eta fresko» joan dela nabarmendu dute. Egoiliarrentzat «esanahi bat» duela ikusi dute eta bertso zaharren tailerren bat edo antzeko ekintzaren bat antolatzeke aukeraz mintzatu dira

an nik». Itxaropentsu begiratzen dio etorkizunari eta poz handia hartzen du neskak ere kantatzen ikusita. Pilarrez, zer erran, bizipoza dario eta ikaragarri alaitu du saioa. «Non dago Sebastian?», galdetzen du. Telefonoz ari da izkina batean. «Oraindik? –beranduxeago–. Gero emakumeez esaten dute...». Basarrik Oiartzungo emakumeei jarritako bertsoak kantatu dizkio eta Lizasok ezagutu ditu.

Han da egoitzako langile taldea ere: Arantxa Susperregi psikologoa, Eneritz Errasti langilea eta praktikak egiten ari diren Maddi Ibarra eta Edurne Lertxundi. Saioa «oso ondo eta fresko» joan dela nabarmendu dute. Egoiliarrentzat jarduera honek «esanahi bat» duela ikusi dute eta bertso zaharren tailerren bat edo antzeko ekintzaren bat antolatzeke aukeraz mintzatu dira.



«EZ GENUEN USTE HAIN SAKONERA IRITSIKO GINENIK»

“Adin Adin” behar batetik jaio zela adierazi du Marta Agirrezabala proiektuaren arduradunak eta Lankuko kideak: eguneko zentro eta egoitzetan dauden pertsonengana euskal kultura iritsarazteko premiatik, bereziki bertsolaritza, terapeutikoki zein ludikoki. Adinekoen bizi kalitatea hobetzea eta gaitasun psikoemozionalak lantzea da helburu orokorra. Ideia Sebastian Lizasorena izan zen. Bera da bultzatzaileetako bat.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aukera eman eta proiektu pilotu gisa egin zen lau egoitzatan, Azpeitia, Tolosa, Arrasate eta Bergaran, 2014ko irailetik abendura. «Saioak oso ondo atera ziren eta psikologo eta dinamizatzaileek oso balantze ona egin zuten. Askok baloratu zuten ekintza batean parte hartzea eta mugitu gabe egotea. Umorea jorratzea ere gustura hartu zuten».

Adinekoak inportante sentitzen ziren beraientzat espresuki ekintza bat egiten zelako eta bertsolariak beraiegana zihoazelako, baita familiek parte hartzen zutelako ere. Gainera, asko hunkitzen ziren eta horrek arreta eman zien psikologoei. Inoiz negarrez ikusi ez zuten gizon bat malkotan hasi zen. Inoiz parte hartzen ez zuenak bertso zahar batzuk kantatu zituen.

Lehen esperientzia horren ondotik, Gipuzkoako 11 zentrotara ireki dute egitasmoa eta bertze lurraldeetara zabaltzeko asmoa dute. Herri txikietako eguneko zentroak ere bisitatu nahiko lituzkete. «Erantzuna oso-oso ona da, guk uste baino askoz hobea. Ez genuen uste hain sakonera iritsiko zenik. Konturatzen zara ze arreta jartzen duten, ze pozik sentitzen diren... Ahaztu samar dugun sektore bat da. Bizitzako azken fasea da, berezia eta gogorra».

Aurretik bertso zaharrak pasatzen dizkiete egoitzetako langileei egoiliarrekin lantzeko. Hala, proiektua ez da egun batekoa bakarrik, aurretik egiten duten lanketa eta ondotik uzten dien zaporea ere bada. Lehenik elkarrikeria bat izaten da eta gero bi bertsolarik saio libre bat egiten dute bertakoak xaxatuz. Ondotik bertze tarte bat irekitzen da adinekoei kantatzeko aukera emanez, eta, azkenik, bertsolariek saio ireki bat egiten dute. Bi belaunalditako bertsolariek kantatzen dute, ahal bada eskualdekoak izaten dira, bat emakumezkoa eta bertzea gizonzkoa.



Gorka Zozaia - @zotz
Kimikaria

Non dago mundu guztia? III: Ez gaituzte bestara gonbidatu

arkitektura / zientzia / teknologia

Honekin, hirugarren eta azken artikulua bizitza adimentsu estralurtarren inguruan. Ikusi dugu Unibertsoaren handitasunaren aurrean estralurtarren arrastorik ez izateak bi aukera uzten dizkigula: edo ez dago pentsa daitekeen beste zibilizazio aurreraturik hor kanpoan (aurreko artikuluan aztertutako Filtro Handiaren teoria), edo badaude, eta arrazoi ezberdinengatik, ez dugu haien berririk. Arrazoiak anitzak dira, baina denak datoz bat “kaskarkeria printzipioarekin”, hau da, kontrakorik frogatu ezean ez da goela arrazoirik pentsatzeko gu aparte-koak garenik, eta, beraz, hor kanpoan bizitza adimentsua egon behar dela. Zergatik ez dugu, beraz, estralurtarren inolako berririk?


Aukera bat, noski, estralurtarren gai-neko literaturan gehien aipatzen dena da; «gobernuek» informazio hori ez-kutatzen dutela, alegia. Konspiranoikoa izan barik, aukera bat bada gutxienez, bistakoa baita botereak nola jokatzen duen informazioarekin. Dena dela, hamaika arrazoi topa daitezke horren aurretik, bi norabidetan: espazio eta denbora kontuengatik kontaktatu ez izana, edo, beste barik, ezberdinak garelako ez sartu izana harremanetan. Unibertsoaren handitasuna kontuan izanik, izan liteke bizitza adimentsua hor kanpoan egotea eta gu interesgarria ez den unibertso baten baten izatea, baita estralurtarrak hemendik pasa izana ere, gure bizitza kontziente laburra –milaka urte batzuk miliaka milioiren aurrean– baino lehen. Edo beste barik, distantzia luzeotan elkarri bidalitako mezuak oraino inora heldu ez izana.

Dena dela, niri interesgarriena ezberdinak gareneko ikuspegia egiten zait. Hau da, kanpoan den bizitza adimentsua «humanoidea» ez izatea, edo ez jokatzea guk espero genezaken bezala. Adibidez, estralurtarrak esploratzaileak ez izatea izan liteke, halako beharrik ez dutelako (nondik gatoz, nora goaz galderak argituak izatea, edota horrelakorik ez planteatzea ere). Edo alderantziz, esploratzaileak izan daitezke, eta gu beha-

tzen egon, baina zuhurtziaz gurekin harremanetan ez sartzea nahiago dute (adimen garapen gutxiagoko espezieekin harremanetan sartzea debekatua egon liteke zibilizazio interplanetario batean). Kasuistika amaigabea zabal liteke ikuspegiotatik, sinpleki, estralurtarrek gizakion antzera jokatzen ez dutela aukera hartuta. Are, jokaeratik askoz harago, bizitza forma, mundu ikuskera, komunikazio kodigo, teknologia maila... ezberdinak hartzen baditugu kontuan. Gure teknologia primitiboegia izan liteke ezer ikusteko (irriti batekin Whatsapp bidezko elkarri-riketa baten berri izaterik ez dugun bezala), edota guztiz bestelako kodigoak erabil ditzakegu harremanetan (gure irudimena horren ohitua dagoen bi dimentsioko errepresentazioa bera, adibidez, Lurrean bertan da ulergaitz hainbat kulturatan), edota are, izan liteke ezin garela estralurtarren existentziaz kontziente izan, inurri batzuk gizateriaz kontziente ez diren zentzu berean. Noski, ildo horretatik, errealtateaz dugun pertzepzioa bera da erratuta egon daitekeena, baina ez nuke nahi horren urrun joan.

Udaren hondarrean «Non dago mundu guztia?» artikulua sortari ekin nio-nean, berri batek piztu zidan gaiari heltzeko gogoa: “Breakthrough Message” izenpean lehiaketa bat antolatu zela estralurtarrei zein mezu helarazi beharko geniokeen argitzeko. Berriak gogorarazi zizkidan Voyager espazio zundetan bidali ziren “Lurreko hotsak” urrezko diskoak eta, arinago, 1972an, “Pioneer 10” zundan ezarri zen plaka, irudian jasotzen dena –esan gabe doa, Mendebaldeko gizon zuriak egindako irudia dela, emakumea pausu bat atzerago, pasibo eta sexurik gabe duena–.

Askotan pentsatu izan dut adimen estralurtarren bat disko edo plaka hauetako batekin topatu eta zer arraio ulertzera hel daitekeen. Edo, hiltzeko modu barregarria litzatekeela plaka oraindik topatu ez gaituen zibilizazio kolonizatzaile eta suntsitzaile baten eskuetara heltzea. Baina tira, nahiago dut pentsatu bestara gonbidatu ez gaituztela, besteak beste, irudiko plakarekin aditzera ematen dugulako arras atzeraturiko adimena dela geurea. •



Irudiko plakarekin aditzera ematen dugu arras atzeraturiko adimena dela geurea.

GAUR8

3 BEGIRADA:

{ koaderno } **Garazi Goia**

Ezustekoen zirkulua itxiz

Uda hartan, liburua irakurri ostean, N-ri lehenengo mezua bidali nionetik zortzi hilabete pasatu ziren itzulpena egingo nuela adostu genuen arte. Mezu batzuk partekatu genituen denbora hartan, baina dena hitzartu genuenean bakarrik esan nion itzulpena sei hilabetetan amaitzeko asmoa nuela; amatasun bajak irauten zidan bitartean. Egun horretan, bera ere haurdun zegoela esan zidan, baita berak ere hirugarren nobela idazteko plana zeukala buruan, nire moduan egunero bi ordu lan eginenez; biok hori egin nahi genuen, haur zaintza lanetatik atgure espazioa mantentzeko, sormena eta amatasuna elkarrekin uztartu ahal izateko. N-ren haurdunaldia luzatu egin zen, bi astez; nirea, hamar egun aurreratu. N-ren alaba apirilaren 12an jaio zen, nirea hurrengo egunean.

Amatasun bajaran nengoela, iluntze batean laneko festa batera joan nintzen. I-rekin topatu nintzen han. I ere euskalduna da eta nire lantegi berean egiten du lan. Duela zortzi urte, hogeita bost mila langileko etxe hartan lur hartu nuenean, esan zidaten bazela han beste euskaldun bat. Orduan ez ginen ezagutu, eraikin ezberdinetan geunden, ni Londresen eta bera hiriaren kanpoaldean. Noizean behin burutik pasatzen zitzaidan ea I-k oraindik han jarraituko ote zuen. Denbora pasatu da, jendeak alde egin du, jende berria etorri da, sail ezberdinak sortu dituzte eta zaharrak desagertu dira. Eta, kasualitatez, azkenean, sail berdinean amaitu dugu.

Udaran egun batzuk pasatzera joan zen I Euskal Herrira, gurasoei bisitan. Asteburu hartan, eguraldi ona zegoela eta, Aralarra joan omen ziren.

Han oinez zebiltzala, beste hainbat mendizale, mendizale ez ziren turista eta beste jende guztiaren artean, gizon bat gerturatu zitzairen. Agidanez, I-ren aitak Boise jartzen zuen xukadera bat zeraman soinean eta ea amerikarrak al ziren galdetu zien gizon hark ingelesez. Ezetz, euskaldunak zirela erantzun zien I-k. Orduan, gizon hura, R, euskaraz hasi omen zen. R ingelesa da baina euskaraz ia perfekzioan hitz egiten du. Beste hamahiru hizkuntzekin batera. Egun gutxi batzuk pasatzera joan zen Euskal Herrira, eta larunbat hartan Aralarra joan zen, justu egun berean, ordu berean, I-rekin enkontru hura eman zen lekura iristeko. I-ren lanari buruz hasi omen ziren berriketan, eta lantegi berean lan egiten zuen beste euskaldun bat ezagutzen zuela aipatu zuen R-k. «Garazi al da? Bai, eta duela urtebete agindu zidan bere liburua bidaliko zidala, baina ez zuen egin».

Nola kalkulatzeko da probabilitate hori? Ingalaterran bizi diren bi pertsona, asteburu berean Euskal Herrira joateko probabilitatea, han daudela mendi berdinerara joatekoa; horretarako egun bera eta ordu bera aukeratzekoa; eta behin han egonda beste hainbat mendizalaren artean topo egitekoa eta hitz egiten hastekoa. Eta, noski, nire izena elkarrizketan ateratzekoa. Ez dakit zein den ekuaizoa, baina probabilitatea ñimiñoa da, ezta?

Baina tira, itzul nadin istoriora. Nire lotsarako, R-k arrazoi zuen. Duela urtebete, Londresen ospatutako hizkuntzen biltzar batean –kasualitatez nire etxe atzeko konferentzia gunean– poesia errezitaldi batera joan nintzen. R-k ingelesera itzulpena egiten zuen, euskaratik ingelesera. Han ezagutu nuen R. Beste hainbat gauzen artean, Euskal Herritik deserrira ihes egin zutenez, euskal literaturaz eta nire liburuaz aritu ginen. Papertxo batean idatzi nuen bere helbidea, nire liburua bidaltzeko. Baina galdu egin nuen. Orduetik askotan etorri izan zait burura, eta egin nituen R-ren laguna den M-ri helbidea eskatzeko pare bat saiakera antzu. Baina kontua da ez niola bidali.

I-k gertatu zena kontatu zidan egunean bertan idatzi zion M-ri R-ren helbidea eskatzeko, eta segituan bidali

«Bizitza ezustekoz beteta dago», esan zidan batek. Egia da, eta ezusteko horiek guztiak bata bestearekin nahasten direnean sortzen dira istorio ederrenak

nion mezua, liburuarekin batera. M ere biltzar berean ezagutzeko zortea izan nuen.

R-rekin mezu trukea izandako aste berean, hegazkin hartatik atera nintzenean, eta izkina batean haur karroa muntatzen ari nintzela, «G, zu zara?», entzun nuen. Kasualitatez, M zen. Aireportuko taxi ilaran, auto zuri bat tokatu zitzaigun. Azkenengoz biltzar hartan ikusi ginenetik jazotakoaren laburpena egin genion elkarri. Itzulpenaren proiektuaren berri eman nion. «Nork idatzi duela esan duzu? N-k? Ezagutzen dut. East Anglia Unibertsitatean ikastaro bat egin zuen eta han kointziditu genuen».

Bizitza ezustekoz beteta dago, esan zidan R-k. Egia da, eta ezusteko horiek guztiak bata bestearekin nahasten direnean sortzen dira istorio ederrenak. •

Emakumeek enpresa arloan duten boterea handitzearena bate-re inbertsiorik eskatzen ez duen aldaketa dela dio Nerea Ibañez Aspegiko (Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkarte) lehendakariordeak, azken batean, «orain artean egon diren ideiak aldatzea» delako emakumeak administrazio kontseiluetara eta zuzendaritza karguetara iristeko bidea. Gizarteak ezin duela biztanleriaren erdian talentua alferrik galdu dio. «Pertsona bati aukera eman behar zaio askatasunez proiektuetan inplikatzeko eta garrantzitsua zer den edo ez erabakitzeke, haren erabakiari aurre hartu gabe», adierazi du, emakumeen balioen inguruko aurreikuspenak aipatuta. Kontziliazioa era aipatu du, baina zentzurik zabalenean, familia ez ezik bizitza ere kontuan hartu behar duelako bere esanetan.

Kaleratutako gidan bildutako gomendio sorta ez da berritzailea, proposamenetako asko lehendik ere ezagunak baitira. Zergatik sentitu duzue gomendiook landu eta liburuxka batean batzeko beharra?

Gida behar batetik eratorri da. Proiektuaren ideia modu arinean sortu zenean aurretik egina zegoen ikerketa baten datuak begiratzaren hasi ginen. Estatu espainoleko datuak jasotzen zituen, eta, gure harriurarako, erabakitzeke ahalmena ematen duten karguetan eta zuzendaritza kontseiluetan emakumeek duten parte hartzearen ehuneko tasetan azken bigarren lekua zuen Euskadik, soilik Ceutaren atzetik. Ez genuen horrelakorik espero, egia esan. Bagenekien arlo horretan hutsune bat genuela, baina hain handia zela ez genuen pentsatzen. Hurrengo urteko datuek are leku okerragoan kokatu gintuzten, azken postuan. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako enpresei dagokionez, %8,79k betetzen dute administrazio kontseiluetan legeak ezartzen duen %40ko emakumeen presentzia. Zifrok esku artean, argi ikusi genuen zerbait egin beharra zegoela. Gure ikerketa propioa egitea erabaki genuen zifron atzean be-

netan zein errealitate zegoen jakiteko. Eta, egia esan, kosta egin zitzaigun lehen lerroan ari diren emakumeen testigantzak batzea; ez, gainera, ez zutelako nahi, haien jarrera oso ona izan delako; emakumeok identifikatzea kostatu zitzaigun, oso gutxi daudelako. 25 batu genituen azkenean eta oso testigantza eta esperientzia aberasgarriak jaso genituen. Konturatu gara uste baino esperientzia gehiago elkarbanatzen dituztela eta hainbat sentsazio ia guztiek bizi izan dituztela.

Esperientzia eta sentsazioak aipatzen dituzu, zerk eman dizue atentzioa testigantza horietatik?

Gidan hainbat arazo azaldu eta hainbat gomendio sartu ditugu, baina guztien artean esaldi edo egoera batek eman zigun atentzioa. «Ez dit konpentsatzen» esal-diarekin dauka erlazioa. Ideia horren bueltan lanean jarraitzeke asmoa dugu, zer pentsa ematen duen ideia delako. Jakin behar dugu zergatik hasten den emakumea bere ibilbidea zailtzen jar-tzen behin adin profesional zehatz batera iritsitakoan. Gure ustez, inguruak eragindako presioa da. Azken batean, oraindik orain besteek esperotako rola ez betetzeak zama handia dakar. Horregatik, gidaren hasieran gizarte-ari eta komunikabideei zuzendu gatzazkio. Gizarteak pertsona guztien aukerak errespetatu be-har ditu; pertsona horiei askata-sun osoz erabakitzeke aukera emango dien inguru bat eskaini behar dio. Komunikabideek rola, balioak, arauak eta sinboloak egonkortzean zeregin garrantzi-tsua dute, eta balio positiboak bul-tzatu behar dituzte; balio horiek katalizatuko dituzten gizon eta emakumezko erreferenteak ager-tu behar dituzte.

Emakumeekin lan egitea behar beharrezkoa dela ondorioztatu duzue.

Bai emakumeekin bai inguruare-kin, biek. Egia esan, seme-alabak dituen emakumeak presio gehi-go duela ikusten da, edota inguru-tik egiten diren adierazpen eta galderek presioa sortzen dietela emakumeoi. Adibide bat jarriko

«Gure gidaren helburua gizartearen %50 baino gehiagoren talentua alferrik ez galtzea da»


NEREA

IBAÑEZ

ASPEGIKO
LEHENDAKARIORDEA

Zailtasunak eta haiek gainditzeko bideak ondo ezagutzen ditu. Emakumeek enpresa arloan duten boterea handitzeko lanean dihardu Aspegi elkartearen.

Maidar Eizmendi



dut. Nik lanegatik bidaiatu egin behar izaten dut, eta, banoanean, behin baino gehiagotan galdetu didate, «eta semea?». Nire senarrari edota gizonezko lankideei ez diote hori galdetzen. Hori oso kaltegarria izan daiteke pertsona batzuen kasuan. Erantzukizunak hartzea eta aginte postuetara iris-tea ez da erraza; ez lortzea ez mantentzea. Laguntza behar izaten da, eta horren ordez kontrakoa jaso-tzea ez da bidezkoa.

Langileari, izan gizon edo izan emakume, bere ibilbide profesionalari dagozkion erabakiak hartzeko ahalmena ezagutzeaz mintzo zarete. Zer gertatzen da hori arautu behar izateko?

Gure gomendioa erantzukizun kargu baterako pertsona baten-gan pentsatzen denean, haren ta-lentua kontuan hartzea da, haren bizitza pertsonala balioetsi gabe. Profesionalak diren pertsona as-kori ez diegu sarri beren ibilbideei dagozkien erabakiak hartzen uz-ten. Adibide bat jarriko dut hobeto ulertzeko. Pentsa zuk ama gai-xo etxean duzula eta hura zaintzen duzula. Enpresa ardura-dunak agian pentsatuko du zu za-rela pertsona egokia kargu edo



Argazkiak: Jon URBE | ARGAZKI PRESS

info+

Gida sarean:

Ikerketaren ondotik
egin duten gomendio
sorta Aspegi elkarteko
webgunean jarri dute
eskuragarri:
www.aspegi.org

familian oinarritutako sarea da batez ere, eta ezaugarri horiek berezi egiten dute egoera. Datu bat aipatu behar da, hala ere: Ogasuneko datuak begiratu gero, konturatzen gara enpresaren jabetza emakumeen esku dagoela kasu askotan, baina ez boterea. Horrek oraindik ere larriago egiten du gertatzen dena.

Ordutegien aferan ere eman nahi izan dituzue gidalerroak.

Ordutegiena oso garrantzitsua da. Ahal den neurrian, bilerak lan ordutegiaren barruan ezarri behar dira, eta lan ordutegia eragin-kortasunez betetzea bultzatu behar da, lanaldiak luza ez daitezen. Era berean, produktibitate maila dagoen moduan dago baloratuta, eta, hala ere, orduen arabera kudeatzen jarraitzen dugu. Ez du zentzurik. Garrantzitsua da langileek zer egin behar duten jakitea eta hori betetzeko baldintzak askatasunez kudeatzea. Azken batean, bizitza pertsonala, familia bizitza eta lan bizitza hobekien uztartzen dituen langilea produktiboagoa izaten da.

Kontziliazioaz mintzatu zarete, baina familia eremuaz harago bizitza eremuaz mintzatzea nahiago izan duzue.

Joera dago horretarako, baina kontziliazioa ez da soilik amatasunarekin edo aitatasunarekin lotu behar, kontziliazioa bizitza da, bizitza pertsonala. Nik giza baliabideen alorrean egin dut lan, eta, oporrak hartzeko orduan, ama edo aita zirenek ez zituztenek baino koordinazio behar gehiago zituztela uste zuten; eta ez da horrela, haurrik ez dutenek ere behar dute kontziliazioa. Hori ulertu behar da bai enpresan bai langileen artean. Aita edo ama denak hala erabaki duelako da aita edo ama. Nik erabaki dezaket ez izatea edota beste modu batera izatea, eta horrek ez dio eskubide gehiago ematen alboko lankideari. Nik izan ditut, esaterako, surflariak lantaldean eta haien eskaera eguerdian bazkaltzeko tarte handiagoa izatea zen, surfean aritzeko. Bakoitzak bere bizitza eta bere beharrak ditu eta hori kudeatzen jakin behar da enpresan.

erantzukizun zehatz bat hartzeko, baina eskaintza ez egitean erabakitzen du etxean duzun egoera zehatzagatik. Hori gertatu egiten da eta ez da justua. Pertsona bati aukera eman behar zaio askatasunez proiektuetan inplikatzeko eta garrantzitsua zer den edo ez erabakitzeko, haren erabakiari aurre hartu gabe.

Aginte eta erantzukizunak hartzeko orduan emakumeei konfiantza falta atzematen zaie?

Konfiantza kontuak ere badaude, bai. Testigantzetako batean jaso genuen bizipen deigarri bat. Emakumeetako batek kargu garrantzitsu baterako beste emakume bat izendatu zuela kontatu zuen. Izendatu zuen emakumea etorri zitzaioela kontatu zuen, eta ia benetan prestatuta zegoen galdetu ziola. Nire ustez, gure buruari jaritzen diogun exijentzia maila handia da, kasu batzuetan handiegia.

Emakumeak erabaki postuetan sartzeko gomendio sorta emakume profesional eta enpresarien elkartetik sortu izanak ez dio gidari bidea zailtzen?

Bai, agian bai, baina guk argi utzi nahi dugu hau ez dela emakume-



«Joera dago horretarako, baina kontziliazioa ez da soilik amatasunarekin edo aitatasunarekin lotu behar, kontziliazioa bizitza da, bizitza pertsonala»

en kontua soilik. Guztientzat dira interesgarriak gure gomendioak, gizartearentzat oro har. Gainera, ez dute inbertsiorik eskatzen, orain artean indarrean izandako ideia batzuk aldatzea baino ez dute eskatzen. Azken batean, gure gidaren helburua gizartearen %50 baino gehiagoren talentua alferrik ez galtzea da. Justiziaz haratago, errentagarritasun kontua ere bada, eta, horregatik, emakume eta gizonek, familiekin, instituzioekin, gizarteak oro har, parte hartu behar dute eraldaketa honetan. Jakina da emakume askok gizonekin baino espediente akademiko hobeak dituztela, baina, aldiz, ez dituzte bostere postuak betetzen. Agian ez dute nahi, baino zergatik? Eta nahi badute, zergatik ez dute horiek lortzeko aukera bera?

Krisi garaian, emakumeak lan merkatutik ateratzeko saialdiak izan direla salatu dute mugimendu feministatik hainbate-tan. Halakorik atzeman duzue?

Krisiaren eraginez gizon eta emakumeen soldaten arteko tartea zabaldu egin da; zalantzarik gabe, emakumeak izan dira egoeraren kalteturik handienak. Urte luzez borroka handia egin da eta egia da

krisiarekin atzerakada gertatu dela emakumeon eskubideetan. Onartu behar dut, hala ere, nire ustez, administrazioen partetik emakumeak babesten ari direla ikuspegi desberdinetatik, proiektu eta programa zehatzekin. Hainbat segmentu eta instituziotan gai hauetan pausuak emateko nolabaiteko interesa dago –eta interesa diot eta ez motibazioa–. Intere-sa badago eta hori behar den bezala bideratzen jakin behar dugu, benetan gizarteari lagun diezaion ahaleginak.

Politikan emakume ordezkarien kuotak ezarri dira, zein modutan baloratzen dituzu halako neurriak?

Gauzak behar bezalakoak balira ez litzateke kuotarik beharko, ahalmenak kontuan hartzea nahikoa litzateke. Baina tamalez ez da hori egiten. Oso prestatuak dauden emakumeak daude gure artean.

Zein eremutan zabaldu nahi dituzue gomendio hauek?

Gida, batez ere, enpresa pribatuei dago bideratuta, gutxien arautua dagoen eremua delako, eta, aldi berean, behar handienak bertan daudelako. Gurea industrian eta

Hori lortzea ez da batere erraza, ezta?

Kudeatzea eta ‘jefe izatea’ bereizi behar dira. Badira oso txarrak diren kudeatzaileak, jefe izatera mugatzen direnak. Kudeatzaile on batek bere bizitzako arlo guztietan izan behar du. Kudeatzaile ona naizela uste dut, eta, horregatik, arlo guztiak kudeatzen saiatzen naiz. Ezin naiz kudeatzaile ona izan nire bizitzako arlo desberdinak kudeatzeko gai ez banaiz. Horretarako malgutasun pixka bat behar dut.

Kanpotik datozkigu ereduak?

Ereduak agian ez, baina beste modu batera jarduten duten kasuak badira. Gurean badira pertsonak, aginte postuetan batzuk, aipatu ditudan jarduteko moduak interesatzen ez zaizkienak. Guztiok ikusi ditugu lanean behar baino ordu gehiago ematen dituzten pertsonak; kasu batzuetan, ez dakit zein den arazoa. Eskozian egona naiz, eta ereduak ez den arren, kontu hau oso desberdin ulertzen dute. Pertsona bat sistematikoki behar ez den orduetan lanean badago, zerbait gertatzen zaion galdetzen zaio. Herri batzuetan gure ordutegiak ez lituzkete onartuko. Familia erantzukizunak alboratzen ari direla usteko zuten; hemen, aldiz, enpresa alboratzen dela uste da.



«Uste dut ezin naizela kudeatzaile ona izan nire bizitzako arlo desberdinak kudeatzeko gai ez banaiz»

EMAKUMEEK ERABAKI ETA AGINTE POSTUETAN TARTE HANDIAGOA IZAN DEZATEN HAMAR GOMENDIO

Enpresei zuzendutako gomendio zehatzak eman aurretik, gizarteari zuzentzen zaio Aspegik egindako gida. «Pertsona guztien aukerak naturaltasunez errespetatzea, eta pertsona horiei askatasun osoz erabakitzeko aukera emango dien ingurune bat eskaintzea», hori da lehen giltza. Emakume, gizon eta administrazioei ezarritako lan ildoekin batera, enpresei hamar gomendio luzatzen dizkie gidak:

- 1.-** Zure enpresan talentuaren %100 lortzeko, erabili hautaketa prozesu irekiak, pertsonen meritu eta gaitasunak soilik kontuan hartuko dituztenak.
- 2.-** Erantzukizun kargu baterako pertsona batengan pentsatzen duzunean, kontuan

- hartu haren talentua, eta ez balioetsi haren bizitza pertsonala; balioetsiko du pertsonak berak. Eskain iezaiozu lanpostua.
- 3.-** Bildu enpresako pertsonekin aldizka, haien lanbide helburuak zeintzuk diren jakiteko. Garatu karrera planak edo lanbide planak.
- 4.-** Erraztu enpresa ahalmena erakusten duten pertsonen lanbide garapena, goi mailako gaitasunak edo gaitasun estrategikoak eskuratzea eta garatzea bultzatuz, pertsona horien baldintza pertsonalak edozein izanik ere.
- 5.-** Ahal den heinean, saiatu bilera ordutegiak, laneko bazkariak, bidaiak eta

- abar ohiko lan ordutegiaren barruan ezartzen. Bultzatu lan ordutegia eraginkortasunez betetzea, lanaldiak artifizialki luza ez daitezen.
- 6.-** Babestu neurri zehatzekin langileen bizitza pertsonala, familia bizitza eta lan bizitza uztartzeko aukera, amen zein aiten kasuan, alderdi pertsonala eta familia alderdia lanbide bizitzaren oztopo izan ez daitezen.
- 7.-** Enpresako sail eta lantalde batzuetan gehienak edo denak gizonak edo emakumeak badira, sartu beste sexuko pertsona gehiago; ikuspegi desberdinek sormen eta talentu handiagoa emango diote enpresari.

- 8.-** Familia enpresaren jabetzan belaunaldi aldaketa prestatu eta planifikatzean, kontuan hartu senideen gaitasun eta merituak. Horretarako, erabili belaunaldi aldaketa antolatzen duten tresnak, hala nola familia protokoloak.
- 9.-** Identifikatu eta balioztatu arrakasta erreferente gisa lanbide helburuak lortzen dituzten pertsonak. Eman balioa bizitza pertsonala eta familia bizitza orekatuz lanbide arrakasta izatea lortzen duten pertsonei.
- 10.-** Ezaugarri pertsonalekiko errespetua eta langile guztienganako zein haien arteko berdintasunezko tratua lagungarriak dira lan giro estimulatzailea sortzeko, pertsonen erabateko lanbide garapena bultzatzeko eta aniztasuna bereizketa eta berrikuntza iturri gisa kudeatzen duen eta erronka berriei aurre egiteko gaituta dagoen enpresa bat lortzeko.

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
Ballesteros



IKUSMIRA

LAGUNARTEAN GOZATZEKO KIROL BATEN AHALIK ETA ANTZEKOENA

Bada dena libre den toki bat. Buila egitea, muturreraino haserretzea edo pozez leher-tzea baimenduta dagoen toki bat. Harmaile-tatik zelaira goitik behera begiratzen zaie oi-netako fosforitoak eta tupe perfektuak luzitzen dituzten kromoetako pertsonaiei. Harmailetatik zelaira bai, baina behetik gora begiratzen zaie, puntaren puntara iristea lor-tzen duten gutxi horien artean daudelako.

«Futbolean jolastea lan bat da?», galdetu zenuen behin. «Gutxi batzuentzat bakarrik, oso zaila da, ia inork ez du lortzen...», saiatu ginen zuri hanketatik beherantz tira egiten lurra uki zenezan.

Segitu beharko dugu kromoetan agertzen ez direnak famatzen, idolo propioak sortzen eta indartzen, kontraborrokan, futbola lagu-nartean jokatzeko edota gozatzeko kirol zi-rraragarri baten ahalik eta antzekoena izan dadin.

amagoia.mujika@gaur8.info



«Zilar emari adatsa...»

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Zilar emari adatsa nork orraztu ez daukazun arren, bizipenen ildo zimurrak... Berri Txarrak-en “Zimelkor” abestia izanen litzateke testu honen soinu banda; irudia, aldiz, emakume xahar bat taka-takara iganda, horman zera idazten: “Adinekoak borrokan”.

Pauso ttipi eta mantsoz, haiek ere oinatzak uzten dituzte gure kaleetako manifestazioen paisaian. Badute zer errana, eta errateko gogoia ere bai. Gipuzkoako jubilatut eta pentsiodunen Duintasuna elkartearen mobilizazio batean izan naiz berriki. Hagitz berezia izan da niretzat. Martxa bukatzean eurekin gelditu naiz pixka batean. Emakume batek besotik heldu eta zenbat

kontu kontatu dizkidan paseo bat eman bitartean! Amatxi oroitarazi dit eta gustura ibili naiz bere ondoan. Urrats batzuk harago zihoan senarra. Elkarrizketan sartzen saiatzen zen, baina emazteak «orain ez gara horretaz ari!» ohartarazten zion eta solasean segitzen zuen.

Murrizketa guztiek emakume aurpegia dutela azaltzen zidan: «Kotizazio gutxi egiteko aukera izan dugu, ez digute kultur mailarik izaten utzi, lanak prekarioak izan dira eta jubilazioak ere halakoak». Andre aunitzi aditutako testigantzak agertzen zituena. Botikara joan aitarentzat edo senararentzat zerbait erostera eta botikariak «zuk ere hartu beharko zenuke» gomen-

datzean, «baina nik ezin dut» erantzuna. Tratu txarrak ere aipatu dizkit, zein zaila den semeak edo senarrak ematen dizkizula onartzea eta, are gehiago, salatzea. Gai hauei guztiei heldu eta borrokatzeko grina sumatzen zaio. E-mailak trukatu ditugu.

Jendartean adinekoez dugun kontzeptua goitik behera aldatu behar dugula pentsatzen dut. Eurretaz mintzatzen gara dituzten beharren ikuspuntutik (botikak, zahar etxeak, zainketak) baina egiten duten ekarpen izugarriaz atzentzen gara (bilibez, senarraz, anaiez... arduratzea, seme-alabak eta etxea sostengatzea...).

Zilar emari adatsa nork orraztu ez daukazun arren... urrearen balioa duzu. •

Garoña, bai ala bai

**Xabier Mikel
Errekondo**

Garoña berrireki egingo dute, kosta ala kosta. Horixe da urte hauetan guztietan adierazi dutena zuzeneko ardura dutenek, Espainiako Gobernuak, Segurtasun Nuklearreko Batzordeak (CSN) eta Iberdrolak. Zergatik, ordea? PPko Gobernuari nuklearrak bost! Baina oligopolioen interesak eta bereak bat dira. Kontua ez da energia eredua, negozioa baino, eta Iberdrola ez da nornahi, indar faktiko nagusietarikoa baizik. Gainera, PPk behar besteko neurri guztiak hartuko ditu, CSN bere nahierara baliatuta. Simplea da oso, Iberdrolak nazioartean berriagarrietan inbertitu du, baina Espainian Iberdrolaren patrikak erradiaktibitatezko txanponez dira betetzen: Garoña %50, Almaraz I %53, Almaraz


II %53, Cofrentes %100, Ascó II %15, Vandellós %28, Trillo %48.

Arazoaren tamaina erraz da ulertzen horrela, Garoña ez baita soilik Garoña. Garoña zortzi erreaktoreen negozio biribilaren ataka da: zentralen bizitza aurreikusitako 40 urteetatik 60ra luzatzeko bermea. Alegia, amortizatutako zortzi erreaktore +20 urtez zuzentzea... +8x20, milaka milioiko negozioa. Fukushima istripuak langa gogorra ezarri die, ordea. Iberdrolak, baina, Garoña egokitzeke ehun milioitik gorako inbertsiorik ez du burutuko Gobernuak berrireki egingo duela ziurtatu artean. Hala, bukatuta behar luketen erreaktorearen ontziaren konponketak ez ditu hasi ere egin... hauteskundeak emaitzen zain. PPk berrireki egin-

go du, bai ala bai. Sozialistak ezetz diote, baina ezaguna dugu hauen hitzaren hutsa.

Eta, eztabaidara atera duten hondakin nuklearren biltegiak ez du ezer baldintzatzen, edozein kasutan beharrezkoa baita. Ondorioz, nago Garoña behin betiko ixteko bide bakarra dagoela: eragileek etengabeko estrategia zuzentzea erantzule nagusia den Ignacio Sanchez Galani. Bada garaia.

P.D.: Ingurumen Ministerioak baimena eman eta hilabetera, zergatik haizatu ote du EAJk biltegiaren gaia? Agian, hauteskondeei begira PPn higadura bere onura delako eta bera higa dezaketen *fracking*-a eta erraustegia fokutik kanpo uzteko. Jokaldi bikoitz aparta! •



Pilotari profesionala da Iñaki Artola (ezkerrean). Mikel, aldiz, bertsolaria da eta Bertsazole Elkartean egiten du lan. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

infraganti ARTOLA ANAIAK

Mikel eta Iñaki Artola dira eurak, bata bertsolaria eta pilotaria bestea. Biek ala biek afizioa ofizio bilakatzea lortu dute; txikitako pasioari bide ematea lortu dute. Inork baino hobeto ezagutzen du batak bestea, eta ederki dakizkite bataren zein bestearen mugak. «Helburua, beti, bakoitzak duen guztia ematea da, ahala mugaraino eramatea».

Soka batekin elkar lotuta biziko balira bezalakoa da Mikel eta Iñaki Artola anaien arteko harremana. Afizioak konpartitzen dituzte, eta horiek ofizio bilakatzea lortu dute, bakoitzak bere modura izan bada ere. Bien artean Iñaki da mediatikoki eza-gunena, pilotaria, Lau T'erdiko Txapelketan final laurdenak arteko bidea egitea lortu duena. Mikelek, berriz, foku gutxiago ditu berarengan, baina iragan igandean Gipuzkoako Bertsolari

Txapelketako finalerdietarako txartela eskuratu zuen, Eskoriatzan jokatu zen kanporaketan. Pilota eta bertsoa –edo alderantziz–, beraz, bien bizitzan protagonista. Elkarren artean, pilota-rekin eta bertsoarekin duten harremanaz hitz egiteko elkartu dira GAUR8rekin.

Aurrez adierazi bezala, final laurdenak arteko bidea egin du Iñaki Artolak Lau T'erdiko Txapelketan: «Uda bastante ona egin nuen, konfiantzarekin sentitzen nuen nire burua eta ilusio dezente nuen jarria txapelke-

tan». Hasi, ongi hasi zela dio –22-17 irabazi zion Olaetxeari final zortzirenetan–, Altuna III.aren aurkako partida iritsi zen arte: «Aste hartan nerbio dezenterekin ibili nintzen, behatz bat arazoak ematen ari zitzaidalako. Nire kasuan, behintzat, nerbioak eta lesio kontuak eskutik helduta doaz. Gainera, banekien jende asko zela joatekoa partida ikustera, eta nik behatza ongi ez nuela jakiteak...». Galdu egin zuen neurketa –14-22–, eta horrekin finalerdietara sailkatzeko itxaropenetako as-

ko, Oinatz Bengoetxea eta Aimar Olaizolaren aurka jokatu behar baitzuen hurrengo fasera-ko sailkapena. Ez zuen aurrera egiterik lortu azkenean.

Mikelek, berriz, txapelketa lehiatzen jarraitzen du, oholtzatik jaisteko batere asmorik gabe. Inoiz baino lan gehiago egin du txapelketa prestatzen, eta egingdako lanak bere fruituak eman dituela esan daiteke: «Sailkapen faseko bi saioetan lan ona egin nuen, eta erraz pasa nintzen aurrera. Gero, final zortzirenetan, hala moduz ibili nintzen; justu-justu sailkatu nintzen, azken tokian. Baina esan dezaket espektatibak beteak ditudala jada. Egingdako lanaren emaitza izan da finalerdietara sailkatu izana». Hemendik aurrera Euskal Herriko Txapelketan sartzea izango du helburu. Finalerdiak lehiatuko dituzten hemezortzi bertsolarietatik hamasei sailkatuko dira, hamazazpi Beñat Gaztelumendi barruan bada. Bakarra geldituko litzateke, beraz, kanpoan: «Helburua, beraz, azkena ez egitea izango da. Arriskua dago, ordea».

GERTUTIK JARRAITUTAKO IBILBIDEAK

Sarreran aipatu moduan, ederki ezagutzen dute elkar, sekreturik gabeko harremana da eurena. Hala, lehen pertsonan ezagutzen dituzte bestearen ibilera eta komeria guztiak. Iñakik, adibidez, lagunak ditu Mikelen bertso eskolako kideak, bera ere, tarteka, bertaratzen delako bertso batzuk kantatzera. «Garai batean, etxeko hirurak –gurasaok eta bera– nahiko nerbioso egoten ginen Mikelen bertso saioak gerturatzean. Baina gero eta lasaiago bertaratzen naiz saioetara, azkenengo hauetara bereziki, hasi zaidalako konfiantza ematen ongi egingo duela», azaldu du anai gazteak.

Anaia zaharrak, berriz, lasaiago jarraitu ditu gaztearen ibilerak: «Iritsi zen momentu bat, afizionatutako azken urtean batez ere, berak ongi jokatzen bazuen garaipena eskuratzen zuela». Profesionaletara salto egin zuenetik, ordea, gauzak asko aldatu direla dio Mikelek. «Nik aulkitik jarraitzen ditut norma-

lean partidak, eta harrituta geratzen naiz orain gutxi arte telebistatik jarraitzen genituen pilotari horiek ze abiaduran jokatzaren duten». Horren harira, dio, askotan galdetzen diola bere buruari zer esan dakioken kantxan dagoen anaiari.

Anaiak izateak, ordea, baditu bere alde onak eta txarrak. «Nik berari esanez gero 'aste honetan bertso eskola txarra egin dut', berak badaki, ez beste inork. Eta alderantziz zer esanik ez; berak behatzean edo eskuan arazoren bat izanez gero, aste guztirako dilema bilakatzen da biontzat. Gehiegi eta dena bizi dugu elkarrena», azpimarratu du Mikelek. Bestalde, anaiak izateak eta elkar hain ongi ezagutzeak asko laguntzen die besteari aholkuak eman edo nolabaiteko ekarpena egiteko orduan. Iñakik, adibidez, dio bigarren entrenatzaile baten moduan hartzen duela anaia: «Bi entrenamendu egin izan ditut nik askotan: bata lagunekin eta bestea, ondoren, anaiarekin egiten nuena. Libre ginen guztietan, gainera, frontoiko plana egiten genuen. Entrenatzaile ezberdinak ere izan ditut, baina beti izan dut bera bigarren entrenatzaile moduan». Eta ez dio hala izateari utzi. Egun Iñakik bere entrenatzaile propioak baditu ere, pilota bakarkako kirola den heinean, norberak moldatu behar izaten du bere jardura, eta hor izaten du anaia esku bat botatzeko.

Mikelek, aldiz, dio hoztasunetik begiratutako iritziak ematen dizkiola anaia gazteak: «Badaki nondik natorren, lehen zer egiteko gai nintzen eta horren arabera iritzia ematen dit. Azkenaldian esan izan dit barrenetik gero eta gehiago abesten dudala. Hori berak bakarrik daki, ez beste inork».

DENA EZ DA PILOTA ETA BERTSOA

Itxura eman dezake ez dela pilota eta bertsolaritzaz gain bizitza artolatarrenean. Ezta gutxiagorik ere, nahiz eta geure burua engainatzen arituko ginatekeen pilotak eta bertsolaritzak Artola anaien bizimoduan duten pisua ezkutatzaren ahalegin-duko bagina. Mikelek dio euren



Iñakik 21 urte ditu; 26 egingo ditu datorren astean Mikelek. J.C. RUIZ | ARGAZKI PRESS

hizketagai nagusia pilota izaten dela, «haserretu arte hitz egiten dugu», eta, lana ere bai; Bertsozale Elkartean lan egiten duenez, lanaz ari denean bertsolaritzaz ari dela gaineratu du. Ordea, azaldu du gurasoak ez direla gehiegi sartzen euren kon-tuetan, eta horrek lasaitasuna ematen diela beste gauza batzuez jarduteko: «Adibidez, hizketagai interesgarriak ekartzen ditu Iñakik klasetik, joaten denean, eta askotan aritzen gara eztabaidan kontu horiez. Bestalde, tesi bat ari da egiten lagun bat naziogintzaz eta estatugin-tzaz, eta sarri hartzen dugu hori ere hizketagai. Soziolinguistika ere presente egon ohi da gure hitz aspertuetan; hizkuntzaren inguruan hitz egiten dugu sarri,

baina baita honek kulturaren duen eraginaren inguruan ere».

Gurasoak pilota eta bertsozaleak direla azpimarratu du Iñakik, baina gaineratu du ez direla mundu horietan asko sartzen, beti kanpotik bezala jarraitzen duela. «Zaleak bai, baina ez gu adina», azaldu du. Hori hala, adierazi du beste ikuspegi batekin ikusten dituztela gauzak: «Adibidez, gure ama ez da kezkatzen irabazi edo galdu egin dudana, minik hartu ote dudana da interesatzen zaiona. Mikelen kasuan, berriz, ea itxura eman dudana jakin nahi izaten du». Aitak ere distantzia hartzen omen du, nahiz pilota asko gustatu. «Baina pentsa, honek [Iñakik] jokatu egiten du, nik purrusta egiten diot, eta, gainera, hiruga-

«Dena ez da pilota, dena ez da bertsoa; bestelako hizketagaiak ere izaten ditugu. Soziolinguistikaz jarduten dugu asko, hizkuntzaz eta honek kulturaren duen eraginaz»

«Ondo pasatzea ahaztu zaigunean izan da gehiena sufritu dugun momentua; txapelketan bizitze horrek jan egin gaituelako gertatu zaigu hori, gain hartu gaituelako»

nen artera iritsi arte ez zuen eman saltoa. Orain ere pentsatzen dut gaitasuna duen horrek gaitasun hori muturreraino eramane behar duela, eta hala izan arte ez dagoela deskantsurik. Nik honakoa nahiko nuke berak esatea ibilbide profesionala amaitzean: 'Nire gaitasunak azkenerraino eramane nituen'. Hori egiten badu, beste guztia atzetik etorriko da».

Iñakik, aldiz, dio estutze maila norberaren helburuen arabera izan ohi dela. Hori hala, gaineratu du berak ez dakiela garbi zeintzuk diren Mikelen helburuak: «Ez dakit bertsotan ambizioz ba ote duen txapelketetan hoberenekin kantatzeko, edo egunen batean hortik bizitzera iristeko». Bereari dagokionez, aitortzen du txikitatik ongi moldatu izan dela pilotan, eta, ondorioz, helburua dituen gaitasunak ongi aprobeztatzera iristea dela, «muturreraino eramatea. Nik uste nahikoa ahalegintzen naizela –jarraitu du–, ñabardurekin, baina oso gutxitan esan behar izan dit gehiago ahalegin- du behar dudala».

Ahala, ordea, norbera gustura aurkitzen denean ateratzen da. Zentzu horretan, ahalegintzen dira gauza bakoitzari bere garrantzia ematen. «Txikitatik ari gara honetan [pilotan eta bertsotan], hori izan dugulako pasio. Gehiena sufritu izan dugunean horrekin ahaztu garelako izan da; txapelketan bizitze horrek jan egin gaituelako, gain hartu gaituelako. Ondo pasatzea ahaztu zaigunean pasa dugu gaizki», adierazi du Iñakik. «Ez baldin bagabiltza gustura, zertarako aritu?», luzatu du galdera Mikelek. «Egiten ari garen hau, finean, eta nahiz eta horretatik bizi garen momentu honetan, hautu bat ere bada», azpimarratu du. •



Iratxe Esnaola
Informatika ingeniaria

Zoriontasuna sare sozialetan

Snapchat sare sozialak Facebook berak baino zoriontsuago egiten omen zaitu; hala dio behintzat Michiganeko Unibertsitateko ikerketa batek (<http://ns.umich.edu/new/releases/23223-snap-decisions-more-happiness-gained-by-using-snapchat-than-facebook>). 154 ikaslek inkesta bat bete zuten, euren smartphonearen bitartez testu formatuko mezuak bidaliz. Galderetako batzuek euren azken interakzio sozialaren gaineko informazioaz galdetzen zuten: norekin izan zen, zein kanal erabiliz eta zer sentitu zuten une hartan. Hortik atera dute ondorio nagusia: Snapchat erabiltzean sentitu emozioak positiboagoak dira Facebookekin sentituak baino.

Horren atzean, azterketaren autore den Joseph Bayer ikertzailearen hitzetan, Snapchat erabiltzaileek sentitzen duten askatasuna dago. Askatasun hori Snapchaten ezaugarri bereizgarriak eskaintzen du: bidaltzen duzuna, segundo batzuetan, desagertu egiten da. Berdin da testu bat edo argazki bat den; desagertu egingo da (guztiz, esango nuke ezetz, baina gure mezuaren hartzaileek ez dute euren mugikorrean gordeta izango). Are, Bayerren aburuz, Facebook une garrantzitsuak partekatzeko gune bilakatu da, ondo pentsatu eta landutako sarrerak argitaratuz. Eta Snapchatek lapurtu dio, antza, une txikiak eta landu gabeko argazki eta edukiak bidaltzeko kanalaren izaera. Hortaz, Snapchatek egunerokotasunari gehiago erantzuten diola dio, erlaxatuago agertzen garela tresna honen aurrean. Finean, autentikoagoa dela.

Mahai gainean jarri du, era berean, ea Snapchat erabiltzaileek pribatutasunaren kontzientzia handiagoa ote duten. Nik nire zalantzak ditut (edukia desagertu egiten dela sineste hutsak, pribatutasunaren gaineko kontzientzia lausotzen du nire ustez). Eta hori gutxi balitz, beste ikerketa batek Instagram sare sozialaren gorakada azpimarratzen du, Facebooken jaitsieraren ondoan (http://www.piperjaffray.com/private/pdf/Taking_Stock_Teach-In_Spring_2014.pdf).

Asko dira, zoriontasuna eta sare sozialen gaineko azterketak. Beste batean, Facebooken euren harremana publiko egiten duten bikoteen eta publiko egiten ez dutenen arteko alde ikertu da (<http://www.newswise.com/articles/are-lovey-dovey-facebook-couples-all-they-seem>). Diotenez, bikote harremanaren hasiera eta bilakaera Facebooken argitaratzen duten bikoteak zoriontsuagoak omen dira. Beste era batera esanda, euren harremana publiko egiten duten bikotean kasuan, euren harremanarekiko duten asebetetze-maila handiagoa omen da. Aurkako norabidean, erabiltzaileetako batzuek Facebook bikotekidea kontrolatua mantentzeko erabiltzen dutela ematen du aditzera azterketak.

Inkesta, noski, Facebook erabiltzaileei bidali zitzaizen, betiere hilabete eta 30 urte bitarteko bikote harreman batean bazeuden. Euren asebetetze-maila neurtzeaz gain, zein argazki argitaratzen dituzten eta bikoteari zenbat mezu publi-

ko bidaltzen dizkieten aztertu nahi zuten. Kasu honetan ere, zoriontasunaren autentikotasunaz mintzo dira. Eta autentikoagoa omen da euren harremana publiko egiten duten bikoteen zoriontasuna. Hitz handiak dira gero.

Mugimendu handia dago sare sozialen munduan. Aspaldi esan ziguten gelditzeko sortu zirela. Ez zirela desagertuko. Baina oso dinamikoa da teknologiaren mundua eta egiten diren ikerketetan nabaritzen da. Horregatik, ziur aski, gero eta arruntagoak dira sare sozialen abandonu-tasa neurtzen duten ikerketak. Eta horregatik ere, Facebookek "Desatsegit" botoia sortzeko aukeraz hitz egin du eta Twitter berak faboritoen orde bihotz bat jarri du. Aldaketak ematen ari dira, erabiltzaileen beharretara egokitu nahian. Sare sozialen munduan, hein handi batean, erabiltzaileek definitzen baitute, inkontzienteki baina naturalki era berean, tresna baten etorkizuna. •




Asko dira zoriontasunaren eta sare sozialen arteko harremanaz eginiko azterketak.

THINKSTOCK

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



DANIEL VELEZ

JOSEBA ELOSEGIK BERE BURUARI SU EMAN ZIONEKOA

1970eko irailak 18. Donostiako Atano frontoian Munduko Pilota Txapelketa-ren inaugurazio ekitaldia egiten ari zen, Franco buru zela. Ekitaldiaren une batean, Daniel Velez, "Soud Ouest" egunkariko argazkilaria, frontoitik ateratzen saiatu zen, baina poliziak ez zion utzi. Bat-batean, oihu bat entzun eta sugarretan bildutako pertsona bat ikusi zuen. Joseba Elosgi zen, bere buruari su eman eta «Gora Euskadi askatuta» oihukatuz Francorengana hurbiltzen saiatu zena. Polizien artetik karretea bukatzeko falta zitzaizkion bi argazkiak atera ostean, karretea barruko arropan gorde eta beste bat jarri zion kamerari. Irteeran kontu handiz miatu eta material guztia kendu zioten, gordea zeukana izan ezik. Hirian zeuden kontrol zorrotzak ikusita, eza-gun bati eman zion karretea, Ipar Euskal Herrira eraman zezan. Behin kanpoan, poliziak berriz miatu zuen eta gauerdira arte atxilo hartu. Ordurako, baina, karretea Donibane Lohitzunen zen eta argazkiak hurrengo egunean argitaratu zituen "Soud Ouest"-ek.



GAUR8 ireki gure leihoa

